

UDALAREN OSOKO BILKURA

2004ko abenduaren 23ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn. (1)
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYA jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

(1) 3. puntuaren hasieran etorri da

Leioako udaletxean, bi mila eta lauko abenduaren hogeita hiruko goizeko hamaikak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2004KO AZAROAREN 18KO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA:

Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, 2004ko azaroaren 18ko bileraren akta onetsi du.

2.- ITURRIBUDE KALEKO 12. ZENBAKIAREN PAREAN DAGOEN HERRI-BIDEKO GUNE BATEN EMAKIDA ADJUDIKATZEA, BERTAN EGUNKARIAK SALTZEKO KIOSKOA JARTZEKO.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 9an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 833/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2004ko abenduaren 1ean hartu zuen 194 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute 2004-10-28ko batzarrean hatutako 4. erabakiaren bitartez, udalaren osoko bilkurak, Iturribide kaleko 12. zenbakiaren parean egunkariak saltzeko kioskoa jartzeko herri-bideko gune baten bakarreko erabilera adjudikatzeari buruzko prozedura arautuko duen Baldintza Agiria onetsi zuela.

Horretarako ezarritako epean, eskaintza bakarra aurkeztu da. Miguel Barreiro Ugarte jaunak egin du, eta 1.500 euroko urteko kanona proposatu zuen.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Miguel Barreiro Ugarte jaunari adjudikatuko zaio Iturribide kaleko 12. zenbakiaren parean dagoen herri-bideko gune baten emakida, bertan egunkariak saltzeko kioskoa jartzeko. Adjudikazio hau burutzeko, beharrezkoa izango da lehiaketa hau arautu duten oinarrietan ezarritakoa betetzea, batez ere honako atal hauei dagokienez:
 - * Kioskoa instalatzeko baimena emango duen beharrezko lizentzia eskatu beharko da (aurrekoa erabiltzen ez bada). Horrenbestez, udalaren Bulego Teknikoak kioskoaren kokapena eta ezaugarriak egiaztatatu beharko ditu.
 - * Hilabeteko epean, adjudikazio hau jakinarazten denetik aurrera zenbatuta, Miguel Barreiro Ugarte jaunak honako agiri eta zenbateko hauek aurkeztu beharko ditu Udal Gordailuzaintzan:
 - 1.500 euro, hau da, eskainitako zenbatekoa.
 - 600 euro, lizitazioari buruzko iragarkiak egunkarietan argitaratzeko gastuengatik.
 - 500 euroko behin betiko bermea (abalaren bitartez edo eskudirutan) Leioako Udalaren alde, lizitazio oinarrietan azaldutako betebeharrak beteko direla bermatzeko.
- Irizpen honen edukia Errenta eta Ordainarazpen Sailari helaraziko zaio, ondore egokiak izan ditzan.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Iturribide kaleko 12. zenbakiaren parean dagoen herri-bideko gune baten emakida Miguel Barreiro Ugarte jaunari adjudikatzea erabaki du, bertan egunkariak saltzeko kioskoa jartzeko. Emakida Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutako termino berberetan egingo da.

3.- BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 9an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 835/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko

bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2004ko abenduaren 1ean hartu zuen 196 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak 2004-09-28an bidalitako idazkia (sarrera erregistroko zenbakia: 5.387) irakurri du Batzordeburuak. Idazki horren bitartez, aipatutako erakundearen Estatutuak aldatzeko proposamenaren berri eman da, botoak biztanle kopuruaren arabera aldatzeko eta zuzendaritza organoei zenbait eskumenak esleitzeko.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Aldaketaren edukiaren berri izan du.
- Horien kopia bat bidaliko zaie udal ordezkariak duten taldeei; horiek, aztertu ondoren, hurrengo osoko bilkuran azalduko dute euren iritzia.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamalau boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak eta PPko lau zinegotzianak; kontrako boto bat, EAKo ordezkariak emandakoa; eta sei abstentzio PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Estatutuen aldaketa **oneste erabaki du**, Partzuergoko Batzar Nagusiak 2004ko ekainaren 22ko batzarrean onetsitako testuaren termino berberetan.

4.- BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAK HODI BILTZAILERA EGINDAKO ISURIAK ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA ALDATZEA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 9an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 836/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2004ko abenduaren 1ean hartu zuen 197 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak 2004-10-06an bidalitako idazkia (sarrera erregistroko zenbakia: 5.578) irakurri du Batzordeburuak. Idazki horren bitartez, hodi biltzailera egindako isuriak arautzen dituen Araudia aldatzeko proposamenaren berri eman da.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Aldaketaren edukiaren berri izan du.

- Espedientea udalaren osoko bidaliko zaio. Agiriak udalaren Bulego Teknikoan geratuko dira, zinegotzi interesdunek aztertu ahal izan ditzaten.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeo ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazazpi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PPko lau zinegotziak, EB-Berdeak taldeko bi zinegotziak eta EAko ordezkariak; eta lau abstentzio, PSE-EE-PSOEko ordezkariak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz, "Hodi-biltzailerako isuriak arautzen dituen Araudia"**ren aldaketa **oneste erabaki du**, Partzuergoko Batzar Nagusiak 2004ko ekainaren 22ko batzarrean onetsitako testuaren termino berberetan. Era berean, Partzuergoari horren guztiaren berri emango zaio, espediente hori 53 udalerrik osatutako eremu guztian batera tramitatzeko.

5.- ESKOLA KONTSEILUETARAKO UDAL ORDEZKARIAK BERRESTEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 9an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 882/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 30ean hartu zuen 178 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Eskola Kontseiluetan edo Ikastetxeetako Ordezkaritza Behineneko Organoetan egongo den udal ordezkariari dagokionez, Alkatetza-Udalburutzak, 2004ko azaroaren 23an egindako Tokiko Gobernu Batzarraren bileran, honako ebazpen hau onetsi zuen:

"827.- ESKOLA KONTSEILURAKO UDAL ORDEZKARIAREN ESKABIDEA, LEIOAKO HHIak ETA OSTALARITZA ESKOLAK ESKATUTA: Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 16an hartu zuen 156 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Aipatutako ikastetxeetako arduradunek idazkiak bidali dituzten (sarrera erregistroko zenbakiak: 5948 eta 5813, hurrenez hurren). Horietan, ikastetxeetako Eskola Kontseiluetarako ordezkariak izendatzea eskatu diote udalari, hauteskunde deialdia egingo delako.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio Batzorde honetako burua den Bixente Barreiro Asensio jauna izendatzeari aipatutako Eskola Kontseiluetan udala ordezkatzeko. Era berean, batzarretarako deialdiak gutxienez batzarra baino 48 ordu lehenago udalera bidaltzeko eskatu du.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **onespenari buruzko dekretua egin du**. Bada,

ebazpen hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean berresteko jarriko da.

Aurretiaz, Udalaren Gobernu Batzordeak 2003ko irailaren 16an egindako batzarrean, ondoren hitzez hitz azaldu den ebazpena onetsi zen.

"416.- UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA IKASTETXEETAKO ESKOLA KONTSEILUETAN: Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak 2003ko irailaren 9an hartu zuen 67 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzorde honen aurreko bileran, izenburuko gaiari dagokionez, honako irizpen hau hartu zen:

"42.- UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA IKASTETXEETAKO ESKOLA KONTSEILUETAN: Ikastetxeen parte hartze, ebaluazio eta gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren 10. artikulua, ikastetxe publikoetako eskola kontseiluaren osaera zehaztean, "zentroa dagoen udalerriko udaleko zinegotzi edo ordezkari bat" zehazten du kontseiluko kide gisa.

Batzordeko buruak adierazi du ikastetxe publiko bakoitzean udala ordezkaturiko duten zinegotziak izendatzeko proposamenak egitea komeni dela.

Gauzak horrela, PPko ordezkariak iragarri du bere Talde Politikoak gai horri buruzko proposamena egitea pentsatu zuela; proposamenean aipaturiko organoetan udala ordezkaturiko duen pertsona udal teknikari bat izatea adierazi ahal izango litzateke. Aldiz, IU-EBko ordezkariak azaldu du Ikastetxeentzat ez dela komenigarria udalak izendatutako ordezkaria Udalaren Gobernu Taldekoa ez izatea, Artaza Institutuan gertatu zen bezala, bertan bera izan baitzen ordezkaria.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak gaia mahai gainean uztea erabaki du, gai horri buruzko proposamenak aurkeztu arte".

Gauzak horrela, Alderdi Popularraren udal taldeak honako proposamena aurkeztu du (sarrera erregistroko zenbakia: 4284/03):

"Ikastetxe publikoetako ordezkariak behineneko organoetan udal ordezkariak izendatzeko sistema aldatzeko proposamena

Zioen azalpena

Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren 81. artikulua ezartzen du ikastetxeetako Eskola Kontseiluak, beste kide batzuekin batera, "zentroa dagoen udalerriko udaleko zinegotzi edo ordezkari batek" osatuko duela.

Gaur egunera arte, Leioaren kasuan, ikastetxe publiko ezberdinetako eskola kontseiluek zinegotzi bat izan dute udala ordezkaturik. Kontuan hartu behar dira bederatzi ikastetxe daudela (hamar, N. Sra. De las Mercedes Herri Ikastetxea zenbatzen badugu, hitzartutako ikastetxea izan arren udal ordezkari baita. Horrela bada, ikastetxeetarako ordezkariak esleitzeko talde politiko bakoitzeko zinegotzi kopuruaren proportzioa kontuan hartuta egin izan da; horrenbestez, aurreko legegintzaldian eta PNV gobernuan zegoela, alderdi horrek lau ordezkari zituen esleituta, PSOE eta PPk bina, eta EH-Batasuna eta IU-EBk bana.

Legegintzaldi berria hastearekin batera, gobernu taldeak ordezkariak izendatzeko sistema berarekin jarraitzea proposatu du. Hori ikusita, Alderdi Popularrak honako adierazpenak azaldu nahi izan ditugu:

Eskola kontseiluan udal ordezkariak duen zinegotzia udalak ikastetxeari dagokionez egiten dituen jardueren arduradun edo partaide gisa agertuko da bertako kideen aurrean. Halaber, ikastetxeari eragin liezaiekeen gaien buruzko informazio zehatza izatea espero da, gaia hezkuntza, kultura, hirigintza edo beste edozein arlotakoa izanda ere, informazio hori guztia kontseiluari helarazi ahal izateko.

Ordezkariak oposizioko zinegotzi batek dienean -Leioako ikastetxe askotan gertatzen den bezala-, lan hori nabarmen murriztuta egongo da: Udal gobernuak kidea

ez denez, ez dauka ez ahalmen ez eskubiderik kontseiluaren aurrean udalak ikastetxeari dagokionez burutu dituen jarduerengatik erantzuteko. Beste alde batetik, oposizioko zinegotzia den aldetik, gehienetan ez du edukiko eskola kontseiluko kideei interesatzen zaien informazio guztia.

Azken finean, Alderdi Popularrekook uste dugu eskola kontseiluetako udal ordezkariak oposizioko zinegotziei emateak eragotzi egiten duela ordezkariak hori behar bezala garatzea.

Erabaki proposamena

Adierazpen horiek kontuan hartuta, eta Ikastetxe Publikoetako buruzko gaiak hobeto kudeatzeko eta horien funtzionamendua hobetzeko asmoz, Leioako Alderdi Popularra Udal Taldeak Ikastetxe publikoetako ordezkariak behineneko organoetan udal ordezkariak izendatzeko sistema aldatzea proposatu du. Horrela, legegintzaldi honetatik aurrera, Ikastetxe ezberdinetako udal ordezkariak gobernuan erantzukizuna duten taldeetako zinegotzietatik bakarrik hartu beharko dute euren gain."

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordeak egoki iritzi dio, aldi baterako, Eskola Kontseiluetako udalaren esku-hartzea errazteko, Informazio Batzorde honetako burua izatea kontseiluetan udala ordezkari modu duena; hala ere, horrek ez dio inolako kalterik eragingo, aurrerago, beste ordezkari modu bat ezartzei.

EBAZPENA

UDALAREN GOBERNU BATZORDEAK arestian azaldutako irizpena berretsi du eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK berau onesteko dekretua eman du."

Batzordeko burutzak, aipatutako organoen bileretara errazago joan ahal izateko, Bea Resa Bardeci andrea ordezkari izateko izendatzea proposatu du, batzuetan deialdi bat baino gehiago aldi berean egiten direlako.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio Udalaren Eskola Kontseiluetan Leioako udala ordezkari izateko, Bixente Barreiro Asensio jauna titular eta Bea Resa Bardeci andrea ordezkari izateko izendatzei. Era berean, gai honi buruz onetsitako ebazpenak udalaren osoko bilkurak berrestea proposatu du.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak eragingo duen hurrengo batzarrean berresteko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, aho batez, Udalaren Eskola Kontseiluetan Leioako udala ordezkari izateko, Bixente Barreiro Asensio jauna titular eta Bea Resa Bardeci andrea ordezkari izateko izendatzea erabaki du.

6.- DOMINIKAR ERREPUBLIKAN DAGOEN SANTO DOMINGO OESTE-KO UDALAREN ETA UDAL HONEN ARTEKO LANKIDETZA ETA SENIDETZE AKORDIOA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 9an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 881/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 30ean hartu zuen 177 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeko buruak Dominikar Errepublikara egindako bisita aipatu ondoren, Leioako udalak bere garaian Dominikar Errepublikako hiriburuarekin hitzarmena sinatu zuela adierazi du (osoko bilkuraren 2001-06-28ko erabakia). Orain, hiriburu hori -Santo Domingo- lau udalerritan banandu da, eta Santo Domingo Oeste udalerriarekin lankidetzak akordioa sinatzea proposatu da. Akordio hori egiteak ez du inolako zenbatekorik ordaintzeko beharra ekarriko.

Beste alde batetik, Santo Domingo Oesteko sindikoak eta Leioako alkateak sinatutako senidetze protokoloa berrestea era proposatu da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio Santo Domingo Oeste eta Leioako udalen arteko Lankidetzak Akordioa berresteari, eta udalerririk ez diren arteko Senidetze Protokoloa berresteari. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honakoa adierazi du:

Talde Politikoetako bozeramaileekin hitz egin duela adierazi du; horiei azaldu die egun batean batzartu egin behar direla Dominikar Errepublikarekin egindako lankidetzak akordioaren ebaluazioari buruzko esperientzia interesgarriari buruz hitz egiteko. Azaldu duenez, testuinguru horretan ipini da udal honen eta Santo Domingo Oeste udalerriko udalaren arteko senidetze eta lankidetzak akordioa eta udalerririk ez diren arteko senidetze protokoloa berresteko.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Azaldu du bere Talde Politikoak babestu egingo duela Santo Domingo Oeste udalerriarekin sinatu den lankidetzak akordioa eta senidetze konpromisoa; izan ere, positiboa da bai udalerririk ez diren eskola-erkidegoetarako bai eta udalerririk ez diren herritar guztientzat ere; horrek, elkarrekiko lankidetzak eta aberastasuna ekarriko du eta, horrenbestez, beti babestuko dira horrelako ekimenak.

Jarraian bozkatzeko ipini da. Hona hemen, bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, "*Herrien Senidetze Protokoloa*" eta "*Leioako Elizatearen udalaren (Bizkaia) eta Santo Domingo Oeste udalerriko udalaren (Dominikar Errepublika) arteko Lankidetzak Akordioa*" **berrestea** erabaki du. Horiek udal honetako alkateak eta Francisco Peña Santo Domingo Oeste-ko sindikoak sinatu zituzten 2004ko azaroaren 25ean.

7.- SOINU ATADIA FUNDAZIOAREN LANPOSTUEN ZERRENDARI BURUZKO PROPOSAMENA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 9an egindako

bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 856/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 30ean hartu zuen 119 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Soinu Atadia Fundazioaren Batza Artekariak 2004ko azaroaren 15ean egindako bileran honako erabakia onetsi du:

“Fundazioaren jardueraren garapenak (musika irakaskuntza ezberdinak pixkanaka ezartzen direla) lanpostuen zerrenda aldatzea gomendatu du, ahal den neurrian erakunde autonomo horren langileen gaur egungo beharrianetara egokitzeko asmoz.

Ikerketa zehatz baten ondoren, aurkeztutako lanpostuen zerrendari buruzko proposamena akta honekin batera agertu eta espedientera gehitzen dena da.

Fundazioaren Batza Artekariak honakoa onetsi du:

1.- Lanpostuen zerrendari buruzko proposamena ontzat emango du, aurkeztu den bezala.

2.- Proposamena langileen ordezkari-taldea bidaliko da, egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ahal izan dituzaten. Alde horretatik, Fundazioaren lehendakariak adierazi du gaiari buruz berak hitz egingo duela langileen ordezkariekin.

3.- Abesbatzako irakaslearen lanpostua kenduko da, eta Ganbera-musikako irakaslearen lanpostua sortuko da. Aurreko lanpostuaren irakasle titularrak, hau da, Laura Nardi Remonda andreak, lanpostu berri horretan jardungo du.

4.- Langileen ordezkari-taldea kontsultatu ondoren, espedientea Udaleko bidezko Informazio Batzordera bidaliko da, horri buruzko irizpena eman eta ondoren Udalaren osoko bilkurak onetsi dezan. Horrela, espedientea bideratzen jarraituko da.”

Berlaratutako jaun-andreei proposatutako Lanpostuen Zerrendaren kopia bana eman zaie.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio aurkeztutako Lanpostuen Zerrenda onesteari. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak aztertzeko ipini beharko da, Soinu Atadia Fundazioaren Estatutuen 10.i) artikuluan eta Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan, xedatutakoari jarraiki.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Soinu Atadia Fundazioaren Lanpostuen Zerrenda onestea erabaki du. Aipatutako zerrenda espedientean agertzen da, eta Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio.

8.- GIZARTE ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMAREN ADJUDIKAZIOA LUZATZEA.-

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak 2004ko abenduaren 15ean egindako bileran onetsi zuen 129 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Gizarte Zerbitzuen Sailak jakinarazi du Udalaren osoko bilkuraren 1999ko maiatzaren 6ko erabakiaren bidez Gizarte eta Hezkuntza Esku Hartzeko Programa Agintzari Gizarte Ekimenerako Kooperatibari adjudikatu zitzaiola, 10 urteko gehieneko iraupenaz eta urtero luzatzeko aukeraz. Azken luzapena 2004ko abenduaren 31n amaitu da.

Agintzari Kooperatibak gutuna bidali du, zerbitzua emateko kontratua berritu nahi duela adierazteko.

Gaur egun hurrengoek lan egiten dute Gizarte eta Hezkuntza Esku Hartzeko Programan: 5 gizarte-hezitzaile familia eta adingabeekin, eta gizarte-hezitzaile 1, lehen mailako prebentzio lanetan.

Sail horrek oso positibotzat jotzen du langile horiek egindako lana”

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak honakoa egitea egokia dela adierazi du: adjudikazioa 2005eko abenduaren 31ra arte luzatzearen aldeko irizpena ematea, eta gai hori Udalaren osoko bilkurak aztertzeke ipintzea, egiten den lehenengo bileran.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Gizarte eta Hezkuntza Esku Hartzeko Programaren adjudikazioa Agintzari Gizarte Ekimenerako Kooperatibari 2005eko abenduaren 31ra arte luzatzea erabaki du.

9.- EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDATZEKO 2/2004 ESPEDIENTEA, KREDITU-GEHIGARRIAREN BIDEZ:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 9an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 860/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Batzorde honi Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoak 2004-11-25ean kredituak aldatzeke espediente bati buruz (mota: Diruzaintzako gerakin likidoaren kargurako kreditu-gehigarria) egindako proposamena aztertu da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikulua eta aurrekontuak betearazteke udal arauaren 4.f) oinarriak xedatutakoari jarraiki, kreditu-gehigarriak modu hauetara finantza daitezke:

A Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.

- B Benetan bildutako diru-sarrera berri edo handiagoen bidez.
C Aurrekontuko beste partida batzuen kreditua deuseztatuz edo horri baja emanez.

Hona hemen gehikuntzaren zenbatekoa eta finantzazio modua azalduta:

KREDITU-GEHIGARRIA

AURREKONTU PARTIDA	IZENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
4212.130.02	Langileen bestelako ordainsariak eta ondasunak	35.000,00 €
4212.211.01	Eraikinak eta bestelako egoitzak	45.000,00 €
4212.629.00	Euskaltegian inbentaria daitekeen materiala	45.000,00 €
GUZTIRA		125.000,00 €

FINANTZAKETA

AURREKONTUKO KONTZEPTUA	IZENA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
87001	Gerakinak sartzea	125.000,00 €
GUZTIRA		125.000,00 €

Udalaren osoko bilkurari dagokio espediente hau onestea, aurrekontuak betearazteko udal arauan xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 2/2004 espedientea, irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 2/2004 espedientea (mota: kreditu-

gehigarria) **onestea erabaki du**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

10.- SOINU ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDATZEKO 1/2004 ESPEDIENTEA, KREDITU-GEHIGARRIAREN BIDEZ: Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2004ko abenduaren 15ean egindako bilera hartutako 252 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Batzorde honi Soinu Atadia Fundazio Publikoak 2004-11-25ean kredituak aldatzeko espediente bati buruz (mota: Diruzaintzako gerakin likidoaren eta diru-sarrera handiagoen kargurako kreditu-gehigarria) egindako proposamena (15 zenbakidun erabakia) aztertu da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikulua eta aurrekontuak betearazteko udal arauaren 4.f) oinarriak xedatutakoari jarraiki, kreditu-gehigarriak modu hauetara finantza daitezke:

- A Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.
- B Benetan bildutako diru-sarrera berri edo handiagoen bidez.
- C Aurrekontuko beste partida batzuen kreditua deuseztatuz edo horri baja emanez.

Hona hemen gehikuntzaren zenbatekoa eta finantzazio modua azalduta:

KREDITU-GEHIGARRIA

AURREKONTU PARTIDA	IZENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
001125/2269800	Orkestraren eta Abesbatzaren jardunaren gastuak	10.000,00
001125/1600100	Gizarte Seg.	3.800,00
001125/130200	Bestelako ordainsariak	6.400,00
001125/6290000	Musika-tresnak	2.500,00
4215/2269900	Musika Kontzertuak	1.300,00
9114/2260300	Publizitatea	1.600,00
1125/2300100	Irakasleak: Ikastaroetako dietak	3.500,00
GUZTIRA		29.100,00

FINANTZAKETA

AURREKONTUKO KONTZEPTUA	IZENA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
420.01	Aldundiaren Dirulaguntza	10.000,00
870/01	Kreditu erantsien gerakinak sartzea	19.100,00
GUZTIRA		29.100,00

Udalaren osoko bilkurari dagokio espediente hau onestea, aurrekontuak betearazteko udal arauaren xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: Soinu Atadia Fundazio Publikoaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 1/2004 espedientea, irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Soinu Atadia Fundazio Publikoaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 1/2004 espedientea (mota: kreditu-gehigarria) **onestea erabaki du**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

11.- ALKATETZAREN PROPOSAMENA, 2004KO AURREKONTUKO UDALBILTZA PARTIDAKO KREDITU ERRESERBARI BURUZ: Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2004ko abenduaren 15ean egindako bileran hartutako 250 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Alkate jaunak proposamenaren berri eman dio Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziari. Honakoa dio, hitzez hitz:

“2004ko Udal Aurrekontuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeen arteko, horien eta Nafarroako lurraldeen arteko, eta horien eta Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko lurraldeen arteko elkarrekiko harreman eta ezagutza lanak garatzeko behar den kreditua bildu nahi duen 4220000 12150 UDALBILTZA partida hausnartu du.

Udal Administrazio honi jakinarazi zaio Leioako Udal Kontserbatorioaren eta Baionako Kontserbatorioaren artean elkarrekiko ezagutza eta lankidetzaren bidea ezartzeko aukera. Unera arte izandako elkarriketen arabera, lankidetzaren honetan oinarritu ahal izango litzateke: Leioako Orkestra Gaztea, Leioako Kantika Korala eta San Juan Bautista Abesbatza Baiona eta horren inguruetara joatea. Helburua kontzertuak eta musika zein harreman arloetako jarduerak antolatzea izango litzateke.

Horregatik guztiagatik, Ogasunaren Batzorde Informazioari honakoa proposatu zaio:

1. 2004ko aurrekontuko kreditu erreserba egingo da, aurretik aipatutako partidaren kargu, eta 22.500,00 euroren zenbatekoan, aurretik adierazitako helburuetarako eta deskribatutako jardueri lotutako joan-etorri, ostatu, mantenu eta beste batzuei buruzko gastuak estaltzeko. Bidezko Informazio Batzordeari behin betiko programaren eta aurrekontuen berri emango zaio.
2. Aipatutako erabakia Udalaren osoko bilkurak berresteko ipiniko da.”

Iritziak elkarri luze adierazi dizkiote.

Bozketan EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo batzordeburu jaunak, EAJ-PNVko Ainara Urbietta Bergara andreak, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andreak eta EAko Ernesto Angel Triqueros Santa Coloma jaunak aldeko botoa eman dute; PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta PPko Iñaki Gamero Delgado jaunak kontrako botoa eman dute, eta PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ordozgoitia andrea eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jauna abstenitu egin dira. Ondorioz, **Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du: 2004ko Udal Aurrekontuko 22.500 euroko kreditu erreserba egitea, 4220000 partidaren kargu, Leioako Udal Kontserbatorioaren eta Baionako Kontserbatorioaren arteko elkarrekiko ezagutza eta lankidetzako programari lotutako joan-etorri, ostatu, mantenu eta beste batzuen helburuetarako.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Beraiek jada 2004ko aurrekontuan Udalbiltzarako partida hori egotearen aurka agertu zirela adierazi du, eta beren erakundeari sor liezazkiokeen lege arazoak azaldu zituzten. Orain, urte amaieran, partida horretarako gastu proposamena aurkeztu da, azkenean Udalbiltzara zuzenean joango ez dena, baina beren ustez, Udalbiltzaren antzeko helburua daukan jarduera baterako emango dena. Izan ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeen, eta Eusko Alderdi Jeltzalearen ametsetako Euskal Herriko gainerako lurralde guztietako herrien arteko elkarrekiko harreman eta ezagutzako ekintzak garatu nahi dira. Beren ustez argi dago partidak oinarri politikoa daukala, nondik datorren ikusita.

Bigarren mailako alde gisa Baiona eta Leioako kontserbatorioen arteko lankidetzakulturala agertzen da, eta proposamena egin duten alderdiek eremu politiko zehatza sortzea sustatu nahi dute funtsean, bigarren mailan kontu kulturala dagoela. Horregatik guztiatik, uste dute ez dela onargarria. Halaber, ez zaie onargarria iruditzen leioar guztien erakundea den kontserbatorioa helburu politiko zehatz batzuetarako erabiltzea, eta are gutxiago modu horretan erabiltzea. Horregatik, onartezintzat jotzen dute partida horren erabilera proposamena, eta hori burutzearen aurka agertuko dira.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

2004ko aurrekontuaren eztabaidan, Udalbiltza-Udalbide partida egotearen aurka agertu zirela adierazi du, egun horretan 2005eko aurrekontuaren aurreproiektua eztabaidatzen denean agertuko diren bezala, eta partida horren diru-trukearen gainean egiten den proposamenean agertuko diren bezala. Jarraian adierazi du berak

badakiela denak helburu politikoa daukala entzun beharko duela, baina uste du proposamen horren atzean beraiekin bat ez datorren helburu politikoa bat dagoela. Izan ere, uste dute diru hori Udalbiltza-Udalbidek dituen helburu berdinetarako erabili nahi dela. PPko bozeramaileak esan duenez, helburu horiek errealitate politikoa bat sortzea dira, beraientzat ez dagoena, irudizkotzat jotzen dutena eta gainera, beraiek euskal politikari eta Euskal Autonomia Erkidegoari buruz duten ikuspegiaren aurkakoa dena.

Bere ustez, onartezina den helburu politikoa daukala esan du berriro, nahiz eta kontserbatorioko ikasleak Kordobara edo atzerriko herrialde batera eramatea bezalakoa dela esango dioten. Hala ere, bere ustez ez da berdina, eta egia esan, Alderdi Sozialistak ez luke inolako oztoporik jarriko, proposatutako diru-laguntza Leioako kontserbatorioak beste edozein kontserbatorio bisitatzeko edo Leioako edozein ikastetxek beste edozein ikastetxe bisitatzeko izango balitz. Horrenbestez, arazo bakarra hori Udalbiltza-Udalbide partidaren barnean egitea da, helburu berdina daukala: berez ez dagoen errealitate politikoa sortzea, lehen adierazi den bezala.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Horri dagokionez, alkatea den aldetik bi xehetasun eman nahi dituela adierazi du: alde batetik, hitz gogorak, hala nola *“onartezina”* eta *“erabilera politikoa”*, entzun dira; bestaldetik, Dominikar Errepublikako Santo Domingo Esterekin hitzarmena gauzatu berri da, bere ustez senidetze hori normala dela. Dominikar Errepublikako errealitaterako laguntza helburuek beren partida espezifikoak daukatela adierazi du, hau da, lankidetzak eta garapenerako partidak leku jakin batzuetan, herri jakin batzuetan gauzatzen da; horrek badu helburu politikoa, eta elkartasuna oso helburu politikoa positiboa da.

Horri dagokionez, Kantika Koraleko gazteak aurreko udan Islandian egon direla adierazi du: enpresaren batek emandako laguntza ez ezik, aurrekontuko euskarria ere izan dute horretarako. Horrek ere helburu politikoa dauka: gazteek beste errealitate batzuk ezagutu behar dituzte, eta bertan parte hartu zuten 14 herrialdeetako (Alemania, Ameriketako Estatu Batuak, Japonia, Islandia, besteak beste) abesbatzekin esperientziak trukatu behar dituzte. Beraz, erabaki horretan proposatzen dutena hauxe da: Leioako orkestra gazteak Gurutze Gorriaren aldeko kontzertu bat egitea apirillean, bertan Leioako orkestra gazteak, Kantika Koralak, umeen abesbatzak eta helduen abesbatzak esku hartuko dutela, eta esperientzia hori Baionan berriro egitea. Jarraian adierazi du 2004an Leioako orkestra gazteak emanaldiak eman dituela Segovian eta Burgosen, eta Espainiako Telebistan hain ezaguna den *“El concierto”* izeneko saioan ere parte hartuko duela. Horrek helburu politikoa dauka. Orduan, zer gertatzen da? Ezin da kontzerturik egin Baionan, nahiz eta Baionako kontserbatorioa ospetsua eta goi-mailakoa den? Ezin da beraiekiko harremanik izan? Euskalduna Jauregian emango den kontzertua ezin da Baionan edo Bordelen burutu? Bere ustez, kontu horretan politika bihurtzen den tremendismo politikoa dagoela adierazi du. Udal Gobernuak astintzen ari dira, beharbada denen gustukoa ez den kontu batean, baina uste du planteamenduak ez direla absurdora eramane behar, horrek ardura gutxi erakusten du eta. Jarraian guztiek burutu nahi denari buruzko informazio zehatza izango dutela adierazi du, kontu horretan inoiz ez baitute iruzurrik sartu, eta etorkizunean ere ez dute horrelakorik egingo.

Jarraian PPko bozeramaileari adierazi dio oraindik ez diola barkamenik eskatu, Udalbiltzara 2003ko aurrekontuko baliabideak transferitu izanaren delitua leporatu izanagatik. Esan bezala, PPko bozeramaileak oraindik ez dio barkamenik eskatu, eta berak larritzat jotzen du hori.

Jarraian adierazi du kasu horren asmoa Leioako Kontserbatorioak, Kantika Koralak, Leioako San Juan Bautista Abesbatzak eta Leioako orkestra gazteak Islandia, Segovia, Burgos, Madril eta Italia bezalako leku ezberdinetan garatu dituzten antzeko jarduerak Baionan edota Bordelen egin ahal izatea dela. Esate baterako, San Juan Bautista Abesbatza musika erlijiosoko lehiaketa batean egon da aurreko udan. Horri

dagokionez, talde politikoek mahaigaineratzen dituzten argudio guztiak errespetagarriak direla adierazi du, baina Gobernu taldearen izenean azaldu du lasai daudela egindako proposamenarekin, zentzuzko proposamena, arrazoitua eta naturala delako, eta helburu politiko ona duelako. Izan ere, garapenerako lankidetzak, politika kulturala, gizarte-zerbitzuak edo azpiegiturak bezalako gauza heterogeneoak antolatzen direnean Udal Gobernuak eta Udalak duten helburu politikoa politika ona egitea da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Udalerriko elkarten aberastea dakarten jarduera kulturalen aurka inoiz agertuko ez direla adierazi du, baina uste dute kasu horretan nabarmena dela nondik datorren partida eta Udalbiltzarekin komunean duen helburua. Alde kulturala bigarren mailan geratzen da; kasu horretan partida Udalbiltzarako zenez eta dena delakoagatik burutu ez denez, partida hori garatzeko esparru zehatza bilatu da, eta esparru hori eremu politiko batean bilatu da; horren ondorioz, horren aurka daude. Horri dagokionez, adierazi du ez daudela Leioako elkarteak beste udalerrri batzuetako (edonongoak direla ere) beste elkarte batzuen ekarpenekin aberastearen aurka, baina beren ustez, kasu honetan Gobernu taldeak jarduera horren intenzionalitate politiko zehatza eta argia dauka. Uste dute aurrekontuan dagoen dirua leioar guztiena dela, eta beraz, ez da kasu horretan bezala proposatzen den hain modu partidistan erabiltzeko.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Alkate jaunak esandakoari dagokionez, ez bere taldeak, ez berak, ez dutela Udal Gobernuak astintzen astintzeagatik eta ez dutela alarmismorik egiten azaldu du. Hala ere, egia da gustatzen ez zaiena edo beren pentsaerarekin bat ez datorrena adierazi behar dutela; hori egin beharra daukate, horretarako hautatu dituzte eta. Argi denez, zenbait gauza ez zaie gustatzen, eta aipatutakoa horietako bat da.

Gai hori eta Dominikar Errepublikako senidetzea ezin direla erkatu adierazi du, denak helburu politikoa duen arren, helburu politiko guztiak ez baitira onak edo bere talde politikoa guztiekin ados ez dagoelako; esate baterako, bere talde politikoa ez dago ados helburu horrekin. Horri dagokionez, proposamen bat egitera ausartuko litzatekeela adierazi du: Baionako kontserbatorioarekiko topaketa hori "kulturarako dirulaguntzak" izeneko partidaren bidez egingo balitz, bere talde politikoak une horretan bertan baiezko botoa emango luke. Izan ere, ez diote inolako arazorik ikusten Leioako Kontserbatorioko umeei Segoviako, Baionako zein edozein herritako umeei izan dezaketen aberasteari. Arazoa Baionara joateko Udalbiltza-Udalbide izeneko partida erabiltzeagatik sortu dela zehaztu du, Segoviara joateko ez dela Udalbiltza-Udalbide izeneko partidari erabili. Horixe da, hain zuzen ere, berarekin bat ez datorren helburu politikoa, Gobernu taldetik Udalbiltza fundazio bat, GKE bat, bezalakoak dela eta bere helburuak Dominikar Errepublikarekin dituzten lankidetzakoak bezalakoak direla sinestazten saiatzen diren arren. Hala ere, horiek ez dira Udalbiltzaren helburuak: hasteko, nazionalistek zehaztutako helburuak dira, ez alderdi sozialistako kideek zehaztutakoak, eta gainera, helburu horiek ez dute zerikusirik mugaz bestaldeko lankidetzarekin.

Amaitzeko, kontserbatorioko gazteak hara joan daitezkeela esan du berriro, ez baitago horretarako inolako arazorik. Bere taldeak bilera horretan bertan baiezko botoa emango luke, behar den moduan joan daitezen, Segoviara edo Bordelera edo alkate jaunak aipatu dituen herri guztietara joaten den moduan, baina berriro galdetu du zergatik proposatu den Baionara joatea aipatutako herrietara joateko erabilitako partida ez den beste batez, zergatik Baionarekiko lankidetzak beste izenburu baten azpian (adibidez, garapenerako lankidetzak) egiten ez den. Bere ustez, ez da lankidetzak mota berdina Dominikar Errepublikarekin egiten saiatu dena edo Segoviako

kontserbatorioarekin egin nahi den transferentzia kulturala. Beraz, gauzak izendatzeko beren izenak erabili behar dira, eta gauzak izendatzeko beren izenak erabiltzen ez direnean, denak ez daude beti ados, eta hori kasu horietako bat da.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Zin egiten du ez zela bere gogoia egun horretan hitz egitea. Baina zenbait gauza esan dira eta badirudi gauzei erantzuten ez zaienean, zer erantzunik ez dagoelako dela, eta ez da horrela.

Badaki eta ulertzen du hori gai politikoa dela, eta ziur dago gai politikoa bati buruz hitz egiteko lekua Udalaren osoko bilkura dela; gauza teknikoei buruz, berriz, batzordeetan egiten dute.

Bera Udalbiltzako lan-taldeetako partaidea izan dela adierazi du. Halaber, bere lanaren hainbat azalpen eman ditu osoko bilkuran, Udalbiltzari buruz hitz egin denean, Udalaren osoko bilkuran Udalbiltza zer zen azaldu du, baita Eusko Alderdi Jeltzaleak nola ulertzen zuen Udalbiltza ere, Udalbiltza zatitu zenean eta Batasunako jendea alendu zenean. Une horretan are argiago geratu ziren Eusko Alderdi Jeltzalerako zeintzuk ziren Udalbiltzaren helburuak. Horri dagokionez, nahiz eta bidezko azalpenak ematen diren, onartzen ez direla edo entzun nahi ez direla adierazi du.

Zenbait gauza ulertzen ez duela adierazi du. Dena den, kasu horretan PPko bozeramailea den Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak Udalbiltzaren eta berak esleitu dituen arrazoiaren gainean eman duen azalpena argi ulertu du. Berak ez dio ezer argitu behar, orain dela gutxi aipatutako alderdiak Nafarroako Gobernuko aurrekontuen gaia gainean izan du eta. Alde horretatik, euskara Nafarroan txarto tratatzen dela ikusi du, eta ez daki hori gai kulturala edo politikoa den. Berak argi dauka zer den, eta horregatik PPK ez dio azaldu behar zer diren eta zer egiten duten. Hala eta guztiz ere, Alderdi Sozialistaren jarrera sinestea kostatzen zaio eta ez daki azalpen hori sinetsi behar duen ala ez. Izan ere, orduan ez du sinestuko Patxi Lopezek Estatutuaren erreforma gisa daukan proposamen politikoari buruz irakurri duena, bertan Erkidego Nazionalaz hitz egiten baita. Berak ez daki euskaldunak Erkidego Nazionala diren, eta Iparraldekoak euskaldunak ez diren, Erkidego Nazionalaren barnean dauden ala ez. Eta batez ere, ez du ulertzen artikulua batean kulturaren eta euskararen Iparralde eta Nafarroarekiko estutze-politikaz hitz egiten denean, hain zuzen ere denok Euskal Herria osatzen dugula esaten denean. Alde horretatik, ez daki gai hori Patxi Lopezen proposamenarekin bat datorren. Izan ere, Baionarekin lankidetzak egiteko, gaia garapenerako lankidetzako partidari sartu behar bada, ez du Patxi Lopezen proposamena ulertzen.

Amaitzeko, horren atzean oinarri politikoa egoteko aukeraz hitz egin du, eta adierazi du denak daukala oinarri politikoa, nahiz eta PPko bozeramailea ulertzen ez duen. Haren ustez, Euskal Nazionalismoa infernua da, hondamendia, eta Iparraldeko jendearekin noizbait erkidego politikoa legez osatzeko aukera izan nahi izatea guztiz baztergarria da, infernura kondenatzeko modukoa. Baina hori bai egin daitekeela Gibraltarrekin, gibraltartarren asmoa alde batera utzita. Eta hori ez da izango gibraltartarrekin erkidego politikoa bakarrik osatzen saiatzea; hori arrunta da edo uler daiteke, eta gainera onartu behar da, baina Iparraldearen kasuan infernura kondenatzeko modukoa da. Halaber, ez du ulertzen itunaren erreformak edo Europako Konstituzioa izenekoak Ibarretxe planari ateak ixten badizkio, Espainiak zein ate ixten duen Gibraltar dela eta, muga guztiak aldaezinak izan behar baitira mundu osorako. Hala eta guztiz ere, Espainiak baiezko botoa emango du, Gibraltarreko arazoa egon arren, eta Irlandakoek ere baiezko botoa emango dute, Estomonen hitzarmen osoa izanda. Beraz, edo guztiek karta berdina erabilita jokatzeko dute edo norberak bereak banatzea baimentzen da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Bere ustez, gai horrek bere denbora behar duela adierazi du, beste gauza batzuekin gertatu den moduan. Gobernuan egon zenean Europako mapa handia zegoela gogoratu zuen, une horretan mugaz bestaldeko harremanak deitzen zirenen erlazio fluxu guztiak agertzen zirela bertan. Horri dagokionez, Suitzako Yura kantoian egon zenean mugaz bestaldeko harremanetarako berariazko fondo bat zegoela ohartu zela adierazi du, Frantziako lau kantoietan eta Suitzako hiru baitzeuden. Egia esan, lankidetzako berariazko fondoak zeukatzen, eta kontzertuak elkarrekin antolatzen zituzten, alkateak biltzen ziren, enpresek baterako planteamendu turistikoa egiten zuten, etab. Dena naturaltasunez egiten zuten, eta ez zen ezer gertatzen. Mapa horretan koloretako gezi asko zeuden, eta horko zatitxo batean, lurralde honi zegokionean, oso gezi gutxi zeuden. Izan ere, hemen diktadura egon da, eta mugaz bestaldeko lankidetzak kultura txikia dago. Gainera, horrek badirudi deabruaren lana dela, lan kaltegarria dela, Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak esan duen bezala. Lankidetzak hori sustatzeko partida berezia egotearen inguruko arazoa izena gustuko ez izatea bada, eta horren ondorioz arazoa izenagatik sortzen bada, orduan ez da hain larria. Berak espero du politika txarragatik kontua ez izorratzea, kontserbatorioen arteko lankidetzak ez desagertzea, eta horren ondorioz, gazteek Baionan abesteko aukera izatea. Izan ere, bere ustez lankidetzak hori naturaltasun osoz gauzatuko da, eta horrelakotzat hartu behar da.

Jarraian PPko Xabier Olabarriera Arnaiz bozeramaile jaunari adierazi dio haren erantzunaren zain dagoela, delitu bat egitea leporatu ziolako eta oraindik barkamena eskatu ez diolako horregatik. Hurrengo urtean gauza bera egingo dela iragarri du, zeregin ona dela uste duelako, eta gainera, ona dela uste duelako. Berarentzat, harrigarria da gazteak Islandiara, Burgosera edo Segoviara joan ahal izatea, edo Espainiako Telebistako "El Conciertazo" saiora eta Italiako musika erlijiosoko lehiaketara, baina Baionara joan ezin izatea. Horri dagokionez, politika egokia edo desegokia izan daitekeela adierazi du, baina edonola ere, ezin da barregarri geratu.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Hitzaldiaren bigarren txanda erabiliko duela adierazi du, Alderdi Sozialista aipatu da eta.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunari adierazi dio berak nahi duenean Euskadiko Alderdi Sozialistaren, eta ez Patxi Lopezen, proposamenari buruz hitz egiteko gerra daitezkeela. Proposamen hori ez da pertsona baten argialdia, eta hori esaten du beste proposamen batzuk zeharka aipatuta, proposamena Alderdi Sozialistaren inguruko pertsona askoren lana da eta. Pertsona horiek proposamenean lan egin dute, eta ezberdintasuna zein den badakien galdetu dio, Patxi Lopezen proposamena (EAJ-PNVko bozeramaileak deitu duen bezala) ez baita pertsona horren proposamena, Euskadiko Alderdi Sozialistarena baizik. Gainera, proposamen irekia da, eztabaidarako proposamena, alegia, eta bertan ez da Udalbiltza sartzen, metodologia-proposamena den lan-proposamen horrek Konstituzioa eta Autonomia Estatutua zehatz-mehatz errespetatzen dituelako, Udalbiltzak ez bezala.

Programan Iparralderi buruz hitz egiteari dagokionez, horri buruz hitz egiten dela adierazi du, EAJ-PNVko bozeramaileak edo alkate jaunak ondo azaldu dutenez hainbat gauza komunean ditugulako, besteak beste, euskara. Alde horretatik, proposamen kulturalak eta ez politikoak direla adierazi du; Udalbiltza, berriz, ez da erakunde kulturala, politikoa baizik.

Alkate jaunari galdera bera egingo diola adierazi du, ez baitu erantzun. Baionan egin nahi den emanaldia eta Burgosen, Segovian eta abarretan egindakoa berdina badira, zergatik ez dira ateratzen diru-kopuruak fondo beretik? Eta hurrengo urtean gauza berdina egin nahi bada, ez du ulertzen zergatik dagoen 2005eko aurrekontuan Udalbiltza-Udalbide izeneko partida bat. Asmoa hurrengo urtean berdina egitea bada, zergatik ez dago Baiona izeneko partida bat? Berritoki esan du gai horrek

helburu politikoa daukala, eta helburu politiko hori ez datorrela bat Alderdi Sozialistaren agiriarekin.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo bozeramaile andreari adierazi dio berak nahi duenean proposamena azaltzeko gera daitezkeela. Hala ere, beste gauza batzuk ere azaldu beharko dizkio: zergatik landu den proposamen bat eta ez bestea, eta zergatik den horietako bat argialdiaren emaitza eta bestea ez.

Aurreko proposamen bat, aipatutako bozeramaileak inoiz azaltzeko eskatu ez duena, dagoela adierazi du, eta proposamen berria azaltzeko eskatzeagatik eskerrak ematen ditu. Dena den, aurrekoa azaltzeko eskatzea ere ondo egongo zatekeen, bi urte baino gehiago baitarama Legebiltzarrean, hori landu nahi izan dutenek baino ez dutela landu. Batak 36 biltzen ditu, gutxienez, eta besteak, aldiz, 11 edo 13. Beraz, argieginak baino gehiago biltzen dituela uste du.

Amaitzeko, adierazi du ez duela ulertzen nola hitz egin daitekeen proposamen batean Iparralde eta Nafarroarekin lehentasunezko harremana daukan Erkidego Nazionalaz, Euskal Herria deritzon Erkidego baten barnean egonda, lurralde horiek barne hartu gabe.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiorrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Eztabaida harrigarria iruditzen zaiola adierazi du, lehenik eta behin hainbestetan aipatu ondoren beharbada komun bihurtu delako. Hala ere, PNV-EAJri nazionalista izatea leporatzeak harritu egiten du oraindik. Udalbiltza zer den jakinda, abesbatzak, dantzak eta abar diren eztabaidatzen jarraitzeak ere harritu egiten du. Izan ere, jakin badakite zer den. Udalbiltza gustuko ez dutenek ahal dutena egiten dutela eta gustuko dutenek ere ahal dutena egiten dutela adierazi du. Dena den, Udalbiltza partida bat badago, eta udalen arteko harremanetan oinarritzen den eraikuntza nazionalerako mekanismoa omen den gauza batean (Udalbiltzaren definizio azkarregia) dirua gastatzen bada, eta horixe egiten badute, berak ez du ulertzen zergatik aztertzen den gai hori osoko bilkuran. Hala ere, gaia bertan dago, eta Aurrekontuaren helburuen barnean dago, boterea daukan Alderdiak nahi duenaren eta ezkutatu ez duenaren barnean. Bere ustez, ez da hori eztabaidatzeko unea, aurrekontu-burutzapena baita eta gainera erabat onartu baita.

Ez zaie gustatzen Udalbiltzarako dirua ematea? Berari ere ez; izan ere, Udalbiltzarako dirua egotekotan beste mota bateko gauzetan gastatzea nahiago du, eta ez bere ustez egon beharko ez liratekeen erakundeak diruz laguntzeko. Udalbiltzarako diru-laguntza hori nazionalistek botoen ehuneko berrogeita hamar baino gehiago duten herrian ematen da, bertan nazionalismoa egiten dela. Hori dela eta, ez da horrelakorik entzuteko, eta Ibarretxe plana argiegina den edo PSOEn plana hauteskundeetarako zuzena den zeharka aipatzeko unea, eta ez da Abesbatzaren edo Orkestraren aurka egin behar. Horri dagokionez, aurrekontu-burutzapena dela, eta zuzena dela adierazi du. Bestelako kontua da gustukoa izatea ala ez izatea, eta horren arabera, horren alde edo aurka bozkatuko da. Hala ere, zalantzan jartzen du bozkatzeko aukera. Izan ere, gehiengoaren ezezko botoa hartuko balu, zer gertatuko litzateke? Amaitzen den urteko aurrekontua baztertzea esan nahi izango luke, eta horregatik bere ustez emaitzarik gabeko eztabaida dela adierazi du. Horri dagokionez, plan eztabaidagarri edo ez-eztabaidagarri berriei buruzko terapia bada, berak ere ordu laurden bat nahi duela bere alderdiak proposatzen duen Atxikimendu Askeko Federalismoa azkar azaltzeko adierazi du.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo bozeramaile jaunari adierazi dio berak normalean ez duela adierazpen errespetugaberik egiten, eta horren ondorioz, lehengo adierazpena errespetugabea iruditu bazaio, barkamena eskatu nahi diola.

Berak ez du Ibarretxe planaren gaineko azalpenik eskatu inoiz, gaia osoko bilkuran inoiz aipatu ez delako. Baina bilera horretan Alderdi Sozialistaren plana aipatu da, eta ez da bera izan, Eneko Arruebarrena jauna baizik. Agian ez zaio eskatu azaltzeko, baina berak pozik entzungo luke azalpena. Uste du biei asko kostatuko litzaiekeela politikaren aldetik elkar ulertzea, nahiz eta aurrez aurreko harremanean inolako arazorik ez duten.

Jarraian bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hamahiru boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak eta EAko zinegotziarena; kontrako zortzi boto, PPko lau zinegotzianak eta PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak. Ondorioz, Udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2004ko Udal Aurrekontuko Udalbiltza partidako kreditu erreserbari buruzko Alkatetzaren proposamenari buruz emandako irizpena berrestea.

12.- 2005. URTERAKO AURREKONTU OROKOR FINKATUA ONESTEA: 2004ko azaroaren 21ean Ogasun eta Kontuen Informazio Batzordeak egindako bileran onetsi zuten Alkatetza-Udalburutzaren 262/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honek, 2004/11/29an eta 2004/12/15ean egindako bileretan, eta 237 eta 251. zenbakidun ebazpenen bidez, hurrenez hurren, gobernu taldeak 2005. urterako aurrekontuaren proiektua aurkeztu jakinarazi, eta proiektu horri aurkeztutako alegazio eta zuzenketa batzuk jaso zituen.

Ondoren Gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuaren zehaztasunak ageri dira, kapituluka laburtuta:

UDAL AURREKONTUA 2005

SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA	2005. URTEA
1	ZERGA ZUZENAK	4.158.263,82	4.738.188,89
2	ZEHARKAKO ZERGAK	1.400.000,00	1.572.500,00
3	TASAK ETA BESTE DIRU SARRERA BATZUK	3.334.934,00	3.534.076,30
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	12.643.855,16	13.261.855,22
5	ONDAREZKO SARRERAK	331.532,85	398.145,84
6	BESTERENTZEAK. BENETAKO INBERTSIOAK	3.015.760,98	742.978,59
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	2.821.058,45	5.467.379,26

	GUZTIRA	27.705.405,26	29.715.124,10
--	----------------	----------------------	----------------------

GASTUAK

KAPITULU A	IZENA	2004. URTEA	2005. URTEA
1	LANGILEEN GASTUAK	7.428.834,54	7.355.642,23
2	UDAL ONDARE ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	9.730.386,36	10.328.919,51
3	FINANTZA GASTUAK	9.152,61	3.500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.133.764,41	4.974.613,67
6	BENETAKO INBERTSIOAK	6.337.250,23	7.022.442,68
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	6,01	30.006,01
9	FINANTZAKO PASIBOAK	66.011,10	0,00
	GUZTIRA	27.705.405,26	29.715.124,10

Soinu-Atadia Fundazio Publikoko Zuzendaritza Batzordeak bere aurrekontua onetsi zuen 2004.11.15ean. Hauxe da onetsitako aurrekontua, kapituluka:

SOINU-ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUA 2005

SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA	2005. URTEA
3	Tasak, prezioak eta beste gastu batzuk.	420.480,00	470.886,00
4	Transferentzia arruntak.	964.259,00	1.004.485,00
8	Finantzako aktiboen aldakuntza.	6,00	6,00
	SARRERAK GUZTIRA	1.384.745,00	1.475.377,00

GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA	2005. URTEA
1	Norberaren lansaria	1.222.733,00	1.323.365,00
2	Ondasun arruntak erosi eta Zerbitzuak.	116.900,00	118.000,00
3	Interesak	6,00	6,00
4	Transferentzia arruntak.	21.000,00	21.000,00
6	Benetako inbertsioak	24.100,00	13.000,00
8	Finantzako aktiboen aldakuntza	6,00	6,00
	GASTUAK GUZTIRA	1.384.745,00	1.475.377,00

Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoak honako aurrekontu hau onetsi zuen 2004.11.25ean:

EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA 2005
--

SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA	2005. URTEA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK		
3	Tasak eta beste diru sarrera batzuk	127.204,76	117.388,10
4	Transferentzia arruntak	735.676,28	770.820,71
5	Ondarezko sarrerak	600,00	600,00
	SARRERAK GUZTIRA	863.481,04	888.808,81

GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	2004. URTEA	2005. URTEA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK		
1	Langileen lansariak	660.910,48	675.389,99
2	Ondasun arruntak erosi eta zerbitzuak	192.798,24	201.437,00
3	Interesak	405,60	421,82
4	Transferentzia arruntak	3.718,00	4.000,00
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK		
6	Benetako inbertsioak	5.500,00	7.560,00
	GASTUAK GUZTIRA	863.481,04	888.808,81

Hauxe da aurrekontu orokor finkatua, kapituluka xehatuta:

Aurrekontu finkatua SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	ESLEIPENA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1	Zerga zuzenak	4.738.188,89
2	Zeharkako zergak	1.572.500,00
3	Tasak eta beste diru sarrera batzuk	4.122.350,40
4	Transferentzia arruntak	13.863.296,78
5	Ondarezko sarrerak	398.745,84
	B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6	Benetako inbertsioak besterentzea	742.978,59
7	Kapital transferentziak	5.467.379,26
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	6,00
9	Finantza-pasiboen aldakuntza	
	SARRERAK GUZTIRA	30.905.445,76

Aurrekontu finkatua GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	ESLEIPENA
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK	

1	Langileen lansariak	9.354.397,22
2	Ondasun arruntak erosi eta zerbitzuak	10.648.356,51
3	Interesak	3.927,82
4	Transferentzia arruntak	3.825.749,52
	B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6	Benetako inbertsioak	7.043.002,68
7	Kapital-transferentziak	30.006,01
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	6,00
9	Finantza-pasiboen aldakuntza	6
	GASTUAK GUZTIRA	30.905.445,76

Gerora, eta posta elektronikoaren bidez, alegazio eta zuzenketa berriak aurkeztu dira, eta talde politiko guztiei helarazi zaizkie.

Ondorengo koadroan talde politikoek aurkeztutako zuzenketa eta alegazioak bildu dira:

ALEGAZIO ETA ZUZENKETAK

ZUZENKETA	TALDE POLITIKOA	Taldearen zuzenk. zenbakia	DIRU-ATALA	KONTZEPTUA	ORAINGO KOPURUA	PROPOSATU TAKO KOPURUA
◆◆◆ EUSKO ALDERDI JELTZALEA ETA EUSKO ALKARTASUNA ◆◆◆						
1	EAJ-PNV / EA	1	490000031111	Elkarlana Sahararekin	31.000	50.000
2	EAJ-PNV / EA	2	490000031112	Elkarlana Dominikar errepublikarekin	23.000	50.000
				GEHITUTAKOIA GUZTIRA	46.000	
	FINANTZAZIOA		490000031110	Kanporako diru-laguntzak	149.596,50	103.596,50
				FINANTZAKETA GUZTIRA	46.000	

◆◆◆ ALDERDI POPULARRA ◆◆◆

Alderdi Popularrak 2005. urteko aurrekontuari aurkeztuko dizkion zuzenketa, osoko zuzenketa bat eta zatizko zuzenketa batzuk, banatu dira, fotokopietan.
Hauxe da aurkeztu duen osoko zuzenketa:

3 OSOKO ZUZENKETA

“Leioako Udaleko Alderdi Popularra Udal Taldeak **OSOKO ZUZENKETA** aurkeztu nahi dio Leioako Udaleko 2005. urteko Aurrekontuari.

JUSTIFIKAZIOA

Joan zen azaroaren 29an Ogasuneko Batzordean aurkeztu zen 2005. urteko Leioako Udalaren aurrekontu proiektua, eta EAJ-EA alderdiek osatzen duten gobernu taldearen interesak islatzen ditu.

Gure talde politikoak ezin ditu aurrekontu hauek onartu: aurten ere Udalbiltza Erakundea finantzatzeko diru-atal bat sartu dute; proiektu baztertzaila da, euskal gizartea eta herritarrak banatzen ditu, ez die leioarren

interesei erantzuten eta, azken batean, Ibarretxeren Planak adierazitako konstituzioz kanpoko proposamenaren zerbitzuan dago.

Gure taldeak ez du inoiz onartuko leioarrak eta gizartea oro har banatzen dituzten proiektuen alde edozein diru kopuru aurreikusten duen aurrekonturik.

Gainera, aurkeztutako osoko zuzenketa honetan oinarritzen da: gobernu taldeak gure udalerriak dituen arazorik larrienetako batzuei aurre egiteko erakutsi duen borondate politikorik eza.

“Leioako Hausnarketa Estrategikoa 2002” dokumentuan (Udalak berak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilbao Metropoli-30-ekin elkarlanean egindako lana) nabarmendu zen bezala, Leioaren “ahultasun” nabarmenetako bi auzo desberdinen arteko loturarik eza eta Udalerrria banatzen duen La Avanzadako errepidea ziren. Arazo larri horiek izan arren, gure udal arduradunek urte gehiegi daramate konponbide zehatzik eskaini barik, inoiz gauzatzen ez diren proiektuak iragarritz.

Gobernu taldeak eragingarritasunik ez duela garbi ageri da herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatean eragin zuzena duten beste gai batzuk jorratzerakoan nabari zaien geldotasunean ere, hala nola, udaletxearen ezinbesteko zaharberritzearen edo kirol instalazioak dagoen eskariari egokitzearen kasuetan. Udalak 2002. urtetik dauzka arazo horiei zelaz erantzun argitzen zuten bi ikerketa, baina hala ere oraindik, 2005eko aurrekontuan ere, ez da arazo horiek konpontzen hasiko direla pentsarazten duen ezein diru-atalik ageri.

Beste alde batetik, nabarmendu behar da gobernu taldeak oposizioko alderdi politikoek beren zeregina behar bezala betetzeko bitarteko gehiago izan dezaten aukera ukatzen jarraitzen duela.

Horregatik guztiagatik Alderdi Popularra udal taldeak ez ditu aurrekontu hauek euren osotasunean onartzen eta osoko zuzenketa aurkeztu die 2005. urteko udal kontuei.”

ZUZENKETA	TALDE POLITIKOA	Taldearen zuzenketa zenbakia	DIRU-ATALA	KONTZEPTUA	ORAINGO KOPURUA	PROPOSATUT AKO KOPURUA
◆◆◆ ALDERDI POPULARRA – ZATIZKO ZUZENKETAK ◆◆◆						
4	PP	1	423000012150	Dirulaguntzak Terrorismoaren Biktimen Elkarteei	0	22.500
5	PP	2	643040055990	Avanzada estaltzeko proiektua (I fasea)	0	150.000
6	PP	3	643070055990	Lamiako-Txorierriko sarbide berriaren proiektua	0	75.000
7	PP	4	643080055990	Udaletxe berria zaharberritzeko proiektua	0	150.000
8	PP	5	622040255990	Avanzadako Lurpeko Pasabideak hobetzea	0	35.000
9	PP	6	643060055990	Planetarioaren proiektua. Ingurumenaren Gela	0	130.000
10	PP	7	643090055990	Azoka Eremuaren Proiektuari buruzko Ikerketa	0	25.000
11	PP	8	643095055990	Hiri arteko mikrobus sareari buruzko ikerketa	0	25.000

12	PP	9	629010055990	Leioako EHUko kanpusa hobetzea	0	60.000
13	PP	10	643097055990	Udal Azoka zaharberritzeko ikerketa	0	25.000
14	PP	11	609055055990	Auzoak hornitu eta apaintzea	0	23.000
15	PP	12	100000011114	Udal talde politikoen langileak.	0	80.000
16	PP	13	batzuk	Kontratazioko udal bulegoaren errefortzua	0	30.000
17	PP	14	batzuk	Sakonetakako kiroldegia . Gazteentzako astialdi alternatiboaren programa	0	40.000
18	PP	15	481150045350	"Leioako hiria" Literatura Saria	0	18.000
19	PP	16	481150045140	Gabonetako Kultura Jarduerak	29.545,91	+ 24.000
20	PP	17	481150045070	Kultur taldeak	42.145,38	+ 10.000
21	PP	18	481180046060	Kirol taldeak	39.003,29	+ 10.000
22	PP	19	481180046170	Atletismo ekitaldia	0	18.000
23	PP	20	481150045360	Urriaren 31eko ospakizuna	0	18.000
24	PP	21	481100032200	Birziklapena eta iraunkortasunari buruzko kanpaina	0	12.500
25	PP	22	481220032450	Eskola osasuna. Tabakoaren kontrako kanpaina.	0	21.000
26	PP	23	480080031400	Pobreziaren aurkako jarduera Premiazko bizitokia.	3.000	+ 19.000
27	PP	24	481260032400	Tratu txarrak jasandako pertsonen aldi-baterako bizitokia	0	21.000
28	PP	25	481080032350	Tratu txarrak jasandako emakumeentzako laguntza telematikorako programa pilotua	0	18.000
29	PP	26	480080031500	Ustekabeko gizarte premietako beharrak	0	15.000
30	PP	27	481240032350	Anorexia eta bulimiari buruko aholkularitza	0	15.500
31	PP	28	481245032360	Familia barruko biolentzia kasuetarako aholkularitza	0	18.000
32	PP	29	481247032360	Semeen tratu txarrak jasotzen dituzten gurasoentzako laguntza psikologikoa	0	18.000
33	PP	30	480030032340	Elbarrien trat. Psikopedagogiakorako laguntzak	15.000	+ 3.500
34	PP	31	batzuk	Leioako etorkinei buruzko ikerketa	0	15.000
35	PP	32	4811220032410	Ordainketak haurtzaindegiei	6.000	+ 6.500
36	PP	33	481220032390	Alkoholaren kontsumoko kanpaina	0	15.500
37	PP	34	481010044520	Ezgaitu larriak	7.190,00	+ 6.000
38	PP	35	643010055990	Udondo ibaiko hezegunearen ikerketa	0	21.000
39	PP	36	643015055990	Leioako fauna, flora eta geari buruko ikerketa	0	12.000
40	PP	37	643018055990	Leioako sumendiko gea balioztatze proiektua	0	12.000

41	PP	38	481120032300	Leioako udalak <i>Comercia</i> -ri emandako saria.	0	18.000
				GEHITZEAK GUZTIRA		1.236.000
	FINANTZATZEA		SARRERA HANDIAGOA 1140000	Natura-lurren balioa igotzeari buruzko zerga	300.000	+ 60.000
42			2820000	Eraikuntzak, instalazioak eta obren gaineko zerga	1.572.500	+ 125.000
43			3120100	Hirigintza lizentziak	157.250	+ 50.000
44			7710500	Hirigintza konpentsazioak	631.068,88	+ 80.000
				SARRERA HANDIAGOA GUZTIRA		+ 315.000
45			GASTU TXIKIAGOA 422000012150	Udalbiltza- Udalbide	22.500	22.500
46			226900012180	Gastu Orokorra	550.533,46	537.500
47			130020091140	Beste lansariak. Zehaztugabeak.	340.772,70	301.000
48			629010055990	EHU Artea kalean	60.000	60.000
				GASTU TXIKIAGOA GUZTIRA		+ 921.000
				FINANTZAKETA GUZTIRA		1.236.000



ALDERDI SOZIALISTA



49

OSOKO ZUZENKETA

“Leioako Udaleko PSE-EE-PSOE Udal taldeak **OSOKO ZUZENKETA** aurkeztu dio Leioako Udaleko 2005. urteko aurrekontuari.

JUSTIFIKAZIOA

Susana González Rómulo, Leioako Alderdi Sozialistaren Udal Taldeko Eledunak, ondoko osoko zuzenketa hau aurkeztu dio Leioako Udal Gobernu Taldeak (EAJ-PNV eta EA) aurkeztutako 2005. urteari dagokion Udal Aurrekontuaren Aurreproiektuari.

Justifikazioa

2004ko urtarrilaren 22an 2004ko Aurrekontuaren Proiektuari Osoko Zuzenketa egin genionean, hauxe esan genuen zuzenketaren hasieran: “**Udaleko aurrekontua edozein udalek guztion baliabideak kudeatzeko daukan tresnarik garrantzitsuena ez ezik, lortu nahi den herriaren definizio gardena ere bada. Bertan lehentasunak markatzen dira, borondateak erakusten dira, konpromisoak planteatzen dira eta, azken batean, talde politiko bakoitzak gizarte, hezkuntza, hirigintza mailan eta abar nahi duen Leioa**

agertzen da. **Aurrekontua egiteak aukera eskaintzen du ideiak, proiektuak eta publikoa ulertzeko moduak kontrastatzeko, proposamen guztien artean guztion Leioa lortu ahal izateko**". Hamaika hilabete geroago ere, hitz horiek berberak erabil ditzakegu Aurrekontu Proiektu honekin dugun lehenengo desadostasuna adierazteko. Izan ere, Osoko Bilkurak urtarrilaren 1a baino lehenago bozkatuko duen arren, ia orain arte Udal Gobernuak osatzen duten taldeek egin eta beraiek bakarrik ezagutu izan dute testu hori osorik. Daukagun denbora laburra **-PSE-EE Udal Taldeak epea luzatzeko prest egon eta 2005. urteko aurrekontuaren onespenean izan zitekeen atzerapena argudio politiko bezala ez erabiltzeko konpromisoa izan arren-**, oposizioko taldeei aurkezteko data bera, eta zinegotzien erdiek, praktikan, beren udal zereginak betetzeko daukaten bitarteko falta nabarmena ikusita, esan behar dugu Aurrekontu Proiektu hau Gobernu Taldearena soilik eta berarena bakarrik dela. Hartara, gure jarrera lan epe berria zabaltzearen aldekoa da, adostasunaren ondorioz, eta **"guztionez eta guztiontzako Leioa pluralaren"** ideia islatuko duen Aurrekontu Proiektu bat aurkeztu ahal izan dadin.

Joan zen urtean hauxe ere genioen: **"...ez dago nazionalismotik eta nazionalismoarentzat gobernatzerik eta, horren ildotik, onartezina da, gure iritziz, Udalbiltza-Udalbiderentzat bideratutako aurrekontuaren atala"**. Erakunde horrek euskaldunak, leioarrak bitan zatitzen dituen nazio erakundea izan nahi du. Gure iritziz, aro politiko honetan eztabaida aberasgarria ez ezik egingarria ere bada. Aro politiko honetan aukera guztiak zabalik daude eta gero eta baldintza hobeak ematen ari dira, egunez egun, oraintsu arte tabu ziren gaietan adostasun politikoa lortzeko. Hala ere, eta hemen datza gure bigarren desadostasuna, jarrera horren aurrean, dagoeneko iraganekoak diren jarrerei eusten dietenen eta, zilegiak izan arren, gure Erkidegoaren herritar guztien erabateko balioztat hartu ezin diren ideologia zehatz batzuekin bat egiten dutenak soilik errespetatzen dituzten errealitate baztertzailak eraikitzen saiatzen direnen setakeria areagotu egiten da. Horrela ikusten dugu guk Udalbiltza-Udalbide, eta argi utzi nahi dugu udalerririk elkarteetan bildu eta elkarlanean aritzearen aldeko gure apustua EUDEL eta FEM erakundeekin hartuta daukagun konpromisoan gauzatzen dela.

Proiektu hau ez onartzeko daukagun hirugarren desadostasuna azaltzeko aipatu nahi dugu **Gobernu Zentraletik datozen funtsen bidez finantzaturako Aurrekontuaren Diru-atalak izatearen eta EAJ alderdiak Senatuan Estatuko Aurrekontu Orokorren Proiektuari betoa jarriaz duen jokaeraren artean ikusten dugun kontraesan handia**. Ez dago ulertzerik zelan finantzatzen diren diru-atalak, onartzen ez den proiektu batetik datozen funtsak erabiliz.

Horregatik guztiagatik, Sozialista Udal Taldeak Aurrekontuaren Aurreproiektua atzera itzultzea eskatzen du eta gobernu taldearen esanetara jartzen da Aurreproiektu adostu eta guztion Leioa ordezkatzeko duenari buruz hitz egiteko.

Proiektu hau ez onartzeko aurkitzen ditugun arrazoi "politikoez" gain, **2004ko urtarrilaren 22ko gure Osoko Zuzenketa berri irakurtzea nahikoa litzateke 2005eko Aurrekontuen Proiektuaren aurka agertzeko**, hamaika hilabete igaro ondoren berriro ere esan baitezakegu aurkeztutako kontuek honako hutsune hauek dauzkatela:

1.- **"Ez dago askonahi handirik gizarte politikaren aldetik"**. Gizarte Ongizatearen arloak Udal Aurrekontu osoaren %6.79a hartu eta %2.4 igo du –hau da, ia-ia Kontsumoko Prezioen Indizea-. Edo alor honetan diren arazoak ez dira gehitu –eta hori pentsaezina da– edo erabiltzeko dauden diru kopuruak benetan urritu dira. Gure iritziz begi bistakoa da gizarte kontuak ez direla Gobernu Talde honen lehentasuna. Iaz hori genion, eta aurten ere berdin diogu: **"...Gizarte Premietarako Laguntza guztietara heltzeko aurrekonturik ez dagoela onartzen segitzen du; ez du planteatzen etxez-etxeko laguntza berrantolatzeko behar litzatekeen besteko diru atalik; ez du planteatzen aisiaren eta denbora librearen eremuan adinduentzako politika desberdinek; ez du planteatzen diru-laguntzak kudeatzeaz harantzago doan gizarte lanerako aurrekontuaren diru-atalik..."**. Gainera, aurrekontuan ez da onartzen inmigrazioa bezalako fenomeno hazkorrei erantzuterik, eta ez da planteatzen alor horretan gero eta gehiago diren beharrei aditzeko eta gizarte ikuspegitik gizarte arazoei aurre egiteko gai izango litekeen Sailaren egitura berririk.

2.- **"Ez dago gizonezkoen eta emakumezkoen artean aukera berdinak izateari begirako emakumearen politikarik"**. Aukera Berdintasunaren aldeko Planari ematen zaion diru-atala ehunekotan igotzen dela egia izan arren, abiapuntuko eta helburuko kopuru absolutuak ez dira nahikoak gai honi seriotasunez heltzeko.

3.- **"Ez dago herri hezkuntzaren aldeko erronkaren aldetik, gizartearen ongizate, kultura eta hirigintza sailekin batera lan egin dezakeen eta horrekin guztiarekin gizarte aurrekontua markatuko lukeen hezkuntza sailik"**.

4.- **"Ez dago tokiko erakundearen aldetik etxebizitza-politika baten erronkarik"** Egia da herri sustapeneko etxebizitzak eraikitzen ari direla –asko gainera-, baina gure iritzia ez da aldatu eta jarraitzen dugu esaten **"ez dela (nahiko) dirurik xedatzen alokairuko etxebizitzetarako, ez eta gizarte premietarako etxebizitzarik (nahikoak) erosteko ere."**

5.- **“Ez dago Leioa unibertsitarioaren aldeko erronkarik. Unibertsitatetik gertuko azpiegitura eta egitura paraleloak dituen herria sortzeak izaera desberdina emango lioke gure herriari, herri unibertsitarioaren izaera alegia, horrek dakartzan alde on guztiekin.”** Leioa herria berdina litzateke gure udalerrian unibertsitateko ikasle kopuru nabarmena biziko balitz? Argi dago ezetz.

6.- Ez dago Leioa kohesionatu eta egituraturik. Talde guztiok sarritan onartu dugunez, Leioa auzo sakabanatuak dituen herria da, eta bere kohesiorako ezinbestekoa du kalitatezko garraio publikoa izatea. Erronka tranbia dela jabetzen gara, eta horren alde gaude, baina gure iritziz aurrekontuak epe labur eta ertaineko konponbideak ere jaso beharko lituzke (hirien arteko garraioa hobetzea, udal zerbitzuak eraginkorki deszentralizatzea, auzo-zinegotziz osatutako egitura bat izatea eta abar.). **Gainera kontutan eduki behar dugu EHUren Campusik handiena gure udalerrian edukitzeak dakarren herri garraioaren beharra gehitzen duela, eta Foru Aldundiaren aldetik unibertsitaterako autobusak murriztu direla.**

7.- Iaz hauxe genion: **“...Tokiko Agenda 21-aren helburua udalerrien garapen iraunkorra sustatzea bada, hau da, oraingo biztanleen beharrak asebetetzen dituen garapena sustatzea, etorkizuneko belaunaldiek euren beharrak asebetetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe ... gure iritziz aurrekontua gai honi ematen zaion diru-atalak argi asko erakusten du Gobernu Taldeak aipatutako Agenda 21 horren helburuekin duen konpromiso urria...”** Tokiko Agenda 21erako sartu den aurrekontua lau aldiz handiagoa da, baina igoera ikusgarria izan arren, azken kopurua ez da inondik inora nahikoa, aurrekontuetan Mendibile Jauregiko diru-laguntzarako esleitu den kopurura ere ez da iristen-eta.

8.- Ez dago udal oposizioaren udal taldeen lan politikorako baliabide nahikorik. Gaur egun, eta Alkate jaunaren figura kontutan hartu gabe, Udal Gobernuaren taldea osatzen duten hamaika zinegotziek bi pertsona liberatuta dauzkate. Ez dugu inoiz liberatze horiek kritikatu, baina begi bistakoa da gainerako hamar zinegotziek antzeko baliabideak eduki beharko lituzketela, bestela duela hamaika hilabete atera genuen ondorio bera atera beharko baitugu orain ere, hau da, **“Gobernu Taldean ez dauden alderdien lana nabarmenki eragozten dela, euren lana egiteko behar dituzten baliabiderik gabe utziz, batez ere giza baliabideen aldetik”**.

9.- **“La Avanzadak ingurumenean dituen inpaktu larrien”** ondoriozko arazoek bere hartan segitzen dute eta ez dute **“ageriko konponbiderik”**. Orduan esan genuen berbera diogu orain ere: **“... ez dago Udalak praktikan jar ditzakeen konponbideak ikertzeko inolako diru-atalik –ez du balio Foru Aldundiaren aitzakia erabiltzea, erakunde horrek bide jakin batzuen gaineko eskumenak dituen arren, Udalak bere alternatibak aurkeztu behar baititu- eta herritarren arazoak konpontzeko dituen eskumenen eremuan jardun ahal izateko”**.

10.- KULTUR LEIOAREN inaugurazioa oso une gogobetegarria izan da gure udalerriarentzat zein gure talde politikoarentzat. Ez dago errepikatu beharrik instalazio horrek zer-nolako aukera itzelak eskaintzen dizkien herritarrei, baina gure ikuspegitik Aurrekontuen Proiektuak ez du bermatzen udalerriko gainerako kultur instalazioek beren zeregina modu eraginkorren beteko dutenik. Kexa ugari jasotzen ditugunean, dela Kultur Etxeak ez dabiltzala ondo, dela diru laguntzak urriak direla edo ordaintzeko berandutzen direla, ezin dugu asebetarik sentitu horiek mantentzeko hartu diren aurrekontuaren kopuruekin. Alde batetik Udal Aurrekontuak KULTUR LEIOAREN funtzionamendu egokirako behar diren funtsak bermatu behar baditu, ezinbestekoa da udalerriko gainerako kultura instalazioek baliabide nahikoa izatea, bestela herritarrek Kultur Etxeen eguneko funtzionamenduaz adierazitako arazoak larriagotu ez ezik, udalerraren desegituratze eta desantolatzeak ere areagotuko baitira, erdiguneak mota guztietako kultura baliabide eta eskaintzak bereganatzen dituen udalerrri batean, beti ere bizileku hutsa izatera kondenatutako kanpoaldearen kaltetan.

11.- Enplegu politika

Badakigu azken urteetan ahalegin handia egin dela aurrekontuetan. Hala ere, gure talde politikoaren iritziz enplegu politikak ahaleginak bildu eta borondateak batu beharko lituzke ahalik eta emaitzarik onena lortzeko. Enplegu politikan funtsezkoa den trebakuntzak aurten iazkoan baino kopuru askoz txikiagoa jasotzen du. Beste aldetik, antzeman dugu aurten enplegua sortzeko programa garrantzitsuei uko egin diegula, hala nola INEMeri eta AUZOLAN programei.

Esandako guztiagatik, Sozialista Taldeak berretsi egiten du Aurrekontuaren Aurreproiektua atzera itzultzeko eskaera eta Gobernu Taldearen esanetara jartzen gara guztiok ordezkaturata sentituko ginatekeen Aurreproiektua negoziatzeko.

ZUZENKETA	TALDE POLITIKOA	Taldearen zuzenketa zenbakia	DIRU-ATALA	KONTZEPTUA	IGOERA EDO MURRIZKETA	PROPOSATUT AKO KOPURUA
◆◆◆ ALDERDI SOZIALISTA – ZATIZKO ZUZENKETAK ◆◆◆						
50	PSE-EE-PSOE	1	481100032180	Herri eskola informazioa	+ 9.541,97	12.000
51	PSE-EE-PSOE	2	42200001	Udalbiltza- Udalbide	- 9.541,97	12.958,03
52	PSE-EE-PSOE	3	481220032390	Alkoholaren kontsumoaren kanpaina	+ 15.000	15.000
53	PSE-EE-PSOE	4	481160045090	Jaiak	- 15.000	235.000
54	PSE-EE-PSOE	5	481230032350	Emakumearen aholkularitza psikologikoa	+ 12.958,03	18.339,03
55	PSE-EE-PSOE	6	42200001	Udalbiltza – Udalbide	-12.958,03	0
56	PSE-EE-PSOE	7	481120032290	Agenda 21en tokiko garapena	+ 50.000	90.000
57	PSE-EE-PSOE	8	130020091140	Beste lansariak. Zehaztugabeak.	- 50.000	290.000
58	PSE-EE-PSOE	9	481100042190	Hezkuntza jardunaldietan	+ 11.620	15.000
59	PSE-EE-PSOE	10	481160045090	Herri jaietako elkarteak	- 11.620	223.380
60	PSE-EE-PSOE	11	481100042230	EHU hitzarmena	+ 24.000	30.010,12
61	PSE-EE-PSOE	12	481150045340	Mendibile Jauregia elkarteak	- 24.000	36.000
62	PSE-EE-PSOE	13	berria	Hezkuntza Saila	+ 30.000	30.000
63	PSE-EE-PSOE	14	4811500	Mendibile Jauregia elkarteak	- 30.000	6.000
64	PSE-EE-PSOE	15	481150045140	Gabonetako kultura ekintzak	+ 30.454,09	60.000
65	PSE-EE-PSOE	16	481170045330	Antzerki jardunaldiak	- 30.454,09	189.545,91
66	PSE-EE-PSOE	17	46160	Elbarrientzako kirol begiraleak	+ 30.000	30.000
67	PSE-EE-PSOE	18	481160045090	Herriko jaiak	- 30.000	193.380
68	PSE-EE-PSOE	19	berria	Inmigrazioaren inguruko proiektuak	+ 60.000	60.000
69	PSE-EE-PSOE	20	130020091140	Lansari zehaztugabeak	- 60.000	230.000
70	PSE-EE-PSOE	21	berria	Auzoetako garraioak	+ 60.000	60.000
71	PSE-EE-PSOE	22	130020091140	Lansari zehaztugabeak	- 60.000	170.000
72	PSE-EE-PSOE	23	481000031380	Zahar etxeetako dinamizatzaileak	+ 15.000	31.885,16
73	PSE-EE-PSOE	24	45150	Erakusketak, lehiaketak, hitzaldiak eta filmak.	- 15.000	135.000
74	PSE-EE-PSOE	25	481020032340	Elbarrien elkarteentzako laguntzak	+ 18.000	18.000
75	PSE-EE-PSOE	26	45150	Erakusketak, lehiaketak, hitzaldiak eta filmak.	- 18.000	117.000
76	PSE-EE-PSOE	27	berria	Genero biolentziaren aurkako plana.	+ 18.000	18.000
77	PSE-EE-PSOE	28	226030045002	Auzokideak informatzeko zirkularrak	- 18.000	82.000
78	PSE-EE-PSOE	29	berria	Gizarte ongizateko argitalpenak	+ 24.000	24.000
79	PSE-EE-PSOE	30	1600400	elkarkidetzako kuotak	- 47.086,48	0
80	PSE-EE-PSOE	31	16000401	elkarkidetzako laneko kuotak	- 26.528	0
81	PSE-EE-PSOE	32	481090032350	Emakumearen berdintasuneko planaren diru-laguntza	+ 13.000	30.000
82	PSE-EE-PSOE	33	4812600	Premiazko bizilekuetarako diru-laguntza	+ 150.000	150.600

83	PSE-EE-PSOE	34	130020091140	Zehaztugabeko lansariak	- 150.000	20.000
84	PSE-EE-PSOE	35	berria	Auzoen deszentralizazio administratiboari buruzko ikerketa.	+ 36.614	36.614
85	PSE-EE-PSOE	36	berria	Avanzadaren ingurumeneko eraginaren ikerketa	+ 150.000	150.000
86	PSE-EE-PSOE	37	226900012180	Gastu orokorra %5	- 150.000	

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak hitza hartu eta, osoko zuzenketa onartuko ez balitz, zatizko zuzenketekin proposatzen dituzten aurrekontuaren aldaketa nagusiak azpimarratu ditu.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak azaldu ditu zergatik aurkeztu duen bere taldeak aurrekontuaren osoko zuzenketa, eta laburki azaldu ditu aurkeztu dituzten zatizko zuzenketa nagusiak.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaun eta Batzorde buruak gobernu taldearen argudioekin erantzun die PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta PSE-EE-PSOeko Susana Gonzalez Rómulo andreak esandakoari.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honako hauek egitea komeni dela erabaki du:

1. PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren eta PPko Iñaki Gamero Delgado jaunaren aldeko botoekin, PSE-EE-PSOeko Susana Gonzalez Romulo andreak eta PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ordozgoitia andreak abstentzioarekin, bai eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunaren abstentzioarekin ere, eta Batzorde honen buru den EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunaren, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunaren, EAJ-PNVko Ainara Urbieto Bergara andreak, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andreak eta Eako Ernesto Angel Trigueros SantaColoma jaunaren kontrako botoekin, Alderdi Popularra taldeak 2005eko aurrekontuaz aurkeztu dituen osoko zuzenketaren eta zatizko zuzenketen aurkako irizpena ematea.
2. PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak eta PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ordozgoitia andreak aldeko botoekin, PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren eta PPko Iñaki Gamero Delgado jaunaren abstentzioarekin, baita EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunaren abstentzioarekin ere, eta Batzorde honetako buru den EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunaren, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunaren, EAJ-PNVko Ainara Urbieto Bergara andreak, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andreak eta Eako Ernesto Angel Trigueros SantaColoma jaunaren kontrako botoekin, PSE-EE-PSOE taldeak 2005eko aurrekontuaz aurkeztu dituen osoko zuzenketaren eta zatizko zuzenketen aurkako irizpena ematea.
- 3.- 2005. ekitaldirako aurrekontu orokor finkatua onestea. Aurrekontu horren kapitulukako eta erakunde autonomo bakoitzeko laburpena aipatzen da Batzorde honen irizpen honetan, EAJ-PNV eta EA talde politikoek osatzen duten Gobernu taldeak proposatu eta 2004ko abenduaren 15eko bileran Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honen aldeko irizpena jaso zuten zuzenketak sartuta (1 eta 2. zuzenketak).
- 4.- Hartara, aurrekontu horretan jaso diren langileen plantillak onestea.
- 5.- Aurrekontua egikaritzeko udal arautegia onestea.

- 6.- Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen gaineko abenduaren 2ko 20/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan finkatutakoari jarraiki, horrela onetsitako aurrekontuak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren, jendaurrean ipiniko dira hamabost egunez. Interesatuak epe horren barruan aurrekontuak aztertu eta erreklamazioak egin ahal izango dituzte Osoko Bilkuraren aurrean.
- 7.- Aurrekontua behin-betiko onetsita geldituko da arestian aipatutako hamabost eguneko epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada eta, aurkeztekotan, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.
- 8.- Hurrengo Osoko Bilkuraren gai zerrendan 2005eko aurrekontu orokor finkatuari dagokion puntua sartzea.

Alkate-udalburuak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Eztabaida eta dagozkion bozketak antolatzeko moduak Eledunen Batzarrean azaldu direla esan du. Lehendabizi Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak aurkeztutako osoko zuzenketak defendatuko dira, eta ondoren banaka bozkatuko dira osoko zuzenketa biak. Bigarrenik, Alderdi Sozialistak aurkeztutako zatizko zuzenketak orokorrean defendatuko dira, eta ondoren Alderdi Popularrarenak; horren ostean zuzenketa horiek bozkatuko dira eta, azkenean, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenari buruzko bozketa egingo da.

PSE-EE-PSOEko Susana González Rómulo andreak, bere Talde Politikoak aurkeztutako osoko zuzenketari buruz, honakoa adierazi du:

Osoko zuzenketa irakurri du. Hitzez hitz hauxe dio:

"2004ko urtarrilaren 22an 2004ko Aurrekontuaren Proiektuari Osoko Zuzenketa egin genionean, hauxe esan genuen zuzenketaren hasieran: "Udaleko aurrekontua edozein udalek guztion baliabideak kudeatzeko daukan tresnarik garrantzitsuena ez ezik, lortu nahi den herriaren definizio gardena ere bada. Bertan lehentasunak markatzen dira, borondateak erakusten dira, konpromisoak planteatzen dira eta, azken batean, talde politiko bakoitzak gizarte, hezkuntza, hirigintza mailan eta abar nahi duen Leioa agertzen da. Aurrekontua egiteak aukera eskaintzen du ideiak, proiektuak eta publikoa ulertzeko moduak kontrastatzeko, proposamen guztien artean guztion Leioa lortu ahal izateko". Hamaika hilabete geroago ere, hitz horiek berberak erabil ditzakegu Aurrekontu Proiektu honekin dugun lehenengo desadostasuna adierazteko. Izan ere, Osoko Bilkurak urtarrilaren 1a baino lehenago bozkatuko duen arren, ia orain arte Udala Gobernua osatzen duten taldeek egin eta beraiek bakarrik ezagutu izan dute testu hori osorik. Daukagun denbora laburra –PSE-EE Udala Taldeak epea luzatzeko prest egon eta 2005. urteko aurrekontuaren onespenean izan zitekeen atzerapena argudio politiko bezala ez erabiltzeko konpromisoa izan arren-, oposizioko taldeei aurkezteko data bera, eta zinegotzien erdiek, praktikan, beren udal zereginak betetzeko daukaten bitarteko falta nabarmena ikusita, esan behar dugu Aurrekontu Proiektu hau Gobernu Taldearena soilik eta berarena bakarrik dela. Hartara, gure jarrera lan epe berria zabaltzearen aldekoa da, adostasunaren ondorioz, eta "guztion eta guztiontzako Leioa pluralaren" ideia islatuko duen Aurrekontu Proiektu bat aurkeztu ahal izan dadin.

Joan zen urtean hauxe ere genioen: "...ez dago nazionalismotik eta nazionalismoarentzat gobernatzerik eta, horren ildotik, onartezina da, gure iritziz, Udalbiltza-Udalbiderentzat bideratutako aurrekontuaren atala". Erakunde horrek euskaldunak, leioarrak bitan zatitzen dituen nazio erakundea izan nahi du. Gure iritziz, aro politiko honetan eztabaida aberasgarria ez ezik egingarria ere bada.

Aro politiko honetan aukera guztiak zabalik daude eta gero eta baldintza hobeak ematen ari dira, egunez egun, oraintsu arte tabu ziren gaietan adostasun politikoa lortzeko. Hala ere, eta hemen datza gure bigarren desadostasuna, jarrera horren aurrean, dagoeneko iraganekoak diren jarrerei eusten dietenen eta, zilegiak izan arren, gure Erkidegoaren herritar guztien erabateko baliotzat hartu ezin diren ideologia zehatz batzuekin bat egiten dutenak soilik errespetatzen dituzten errealitate baztertzailak eraikitzen saiatzen direnen setakeria areagotu egiten da. Horrela ikusten dugu guk Udalbiltza-Udalbide, eta argi utzi nahi dugu udalerriak elkarteetan bildu eta elkarlanean aritzearen aldeko gure apustua EUDEL eta FEM erakundeekin hartuta daukagun konpromisoan gauzatzen dela.

Proiektu hau ez onartzeko daukagun hirugarren desadostasuna azaltzeko aipatu nahi dugu Gobernu Zentraletik datozen funtsen bidez finantzaturako Aurrekontuaren Diru-atalak izatearen eta EAJ alderdiak Senatuan Estatuko Aurrekontu Orokorren Proiektuari betoa jarriaz duen jokaeraren artean ikusten dugun kontraesan handia. Ez dago ulertzerik zelan finantzatzen diren diru-atalak, onartzen ez den proiektu batetik datozen funtsak erabiliz.

Horregatik guztiagatik, Alderdi Sozialista Udal Taldeak Aurrekontuaren Aurreproiektua atzera itzultzea eskatzen du eta gobernu taldearen esanetara jartzen da Aurreproiektu adostu eta guztion Leioa ordezkatzeko duenari buruz hitz egiteko.

Proiektu hau ez onartzeko aurkitzen ditugun arrazoi "politikoez" gain, 2004ko urtarrilaren 22ko gure Osoko Zuzenketara berriro irakurtzea nahikoa litzateke 2005eko Aurrekontuaren aurka agertzeko, hamaika hilabete igaro ondoren berriro ere esan baitezakegu aurkeztutako kontuek honako hutsune hauek dauzkatela:

1.- "Ez dago askonahi handirik gizarte politikaren aldetik". Gizarte Ongizatearen arloak Udal Aurrekontu osoaren %6.79a hartu eta %2.4 igo du –hau da, ia-ia Kontsumoko Prezioen Indizea-. Edo alor honetan diren arazoak ez dira gehitu –eta hori pentsaezina da- edo erabiltzeko dauden diru kopuruak benetan urritu dira. Gure iritziz begi bistakoa da gizarte kontuak ez direla Gobernu Talde honen lehentasuna. Iaz hori genion, eta aurten ere berdin diogu: "...Gizarte Premietarako Laguntza guztietara heltzeko aurrekonturik ez dagoela onartzen segitzen du; ez du planteatzen etxer-etxeko laguntza berrantolatze behar litzatekeen besteko diru atalik; ez du planteatzen aisiaren eta denbora librearen eremuan adinduentzako politika desberdinik; ez du planteatzen diru-laguntzak kudeatzeaz harantzago doan gizarte lanerako aurrekontuaren diru-atalik...". Gainera, aurrekontuan ez da onartzen inmigrazioa bezalako fenomeno hazkorrei erantzuterik, eta ez da planteatzen alor horretan gero eta gehiago diren beharrei aditzeko eta gizarte ikuspegitik gizarte arazoei aurre egiteko gai izango litekeen Sailaren egitura berririk.

2.- "Ez dago gizonezkoen eta emakumezkoen artean aukera berdinarik izateari begirako emakumearen politikarik". Aukera Berdintasunaren aldeko Planari ematen zaion diru-atala ehunekotan igotzen dela egia izan arren, abiapuntuko eta helburuko kopuru absolutuak ez dira nahikoak gai honi seriotasunez heltzeko.

3.- "Ez dago herri hezkuntzaren aldeko erronkaren aldetik, gizartearen ongizate, kultura eta hirigintza sailekin batera lan egin dezakeen eta horrekin guztiarekin gizarte aurrekontua markatuko lukeen hezkuntza sailik".

4.- "Ez dago tokiko erakundearen aldetik etxebizitza-politika baten erronkarik" Egia da herri sustapeneko etxebizitzak eraikitzen ari direla –asko gainera-, baina gure iritzia ez da aldatu eta jarraitzen dugu esaten "ez dela (nahiko) dirurik xedatzen alokairuko etxebizitzetarako, ez eta gizarte premietarako etxebizitzarik (nahikoak) erosteko ere."

5.- "Ez dago Leioa unibertsitatearen aldeko erronkarik. Unibertsitate gertuko azpiegitura eta egitura paraleloak dituen herria sortzeak izaera

desberdina emango lioke gure herriari, herri unibertsitarioaren izaera alegia, horrek dakartzan alde on guztiekin.” Leioa herria berdina litzateke gure udalerrian unibertsitateko ikasle kopuru nabarmena biziko balitz? Argi dago ezetz.

6.- Ez dago Leioa kohesionatu eta egituraturik. Talde guztiok sarritan onartu dugunez, Leioa auzo sakabanatuak dituen herria da, eta bere kohesiorako ezinbestekoa du kalitatezko garraio publikoa izatea. Erronka tranbia dela jabetzen gara, eta horren alde gaude, baina gure iritziz aurrekontuak epe labur eta ertaineko konponbideak ere jaso beharko lituzke (hirien arteko garraioa hobetzea, udal zerbitzuak eraginkorki deszentralizatzea, auzo-zinegotziz osatutako egitura bat izatea eta abar.). Gainera kontutan eduki behar dugu EHUren Campusik handiena gure udalerrian edukitzeak dakarren herri garraioaren beharra gehitzen duela, eta Foru Aldundiaren aldetik unibertsitaterako autobusak murriztu direla.

7.- laz hauxe genion: “...Tokiko Agenda 21-aren helburua udalerrien garapen iraunkorra sustatzea bada, hau da, oraingo biztanleen beharrak asebetetzen dituen garapena sustatzea, etorkizuneko belaunaldiek euren beharrak asebetetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe ... gure iritziz aurrekontua gai honi ematen zaion diru-atalak argi asko erakusten du Gobernu Taldeak aipatutako Agenda 21 horren helburuekin duen konpromiso urria...” Tokiko Agenda 21erako sartu den aurrekontua lau aldiz handiagoa da, baina igoera ikusgarria izan arren, azken kopurua ez da inondik inora nahikoa, aurrekontuetan Mendibile Jauregiko diru-laguntzarako esleitu den kopurura ere ez da iristen-eta.

8.- Ez dago udal oposizioaren udal taldeen lan politikorako baliabide nahikorik. Gaur egun, eta Alkate jaunaren figura kontutan hartu gabe, Udal Gobernuaren taldea osatzen duten hamaika zinegotziek bi pertsona liberatuta daukate. Ez dugu inoiz liberatze horiek kritikatu, baina begi bistakoa da gainerako hamar zinegotziek antzeko baliabideak eduki beharko lituzketela, bestela duela hamaika hilabete atera genuen ondorio bera atera beharko baitugu orain ere, hau da, “Gobernu Taldean ez dauden alderdien lana nabarmenki eragozten dela, euren lana egiteko behar dituzten baliabiderik gabe utziz, batez ere giza baliabideen aldetik”.

9.- “La Avanzadak ingurumenean dituen inpaktu larrien” ondoriozko arazoek bere hartan segitzen dute eta ez dute “ageriko konponbiderik”. Orduan esan genuen berbera diogu orain ere: “... ez dago Udalak praktikan jar ditzakeen konponbideak ikertzeko inolako diru-atalik –ez du balio Foru Aldundiaren aitzakia erabiltzea, erakunde horrek bide jakin batzuen gaineko eskumenak dituen arren, Udalak bere alternatibak aurkeztu behar baititu- eta herritarren arazoak konpontzeko dituen eskumenen eremuan jardun ahal izateko”.

10.- KULTUR LEIOAREN inaugurazioa oso une gogobetegarria izan da gure udalerrientzat zein gure talde politikoarentzat. Ez dago errepikatu beharrik instalazio horrek zer-nolako aukera itzelak eskaintzen dizkien herritarrei, baina gure ikuspegitik Aurrekontuen Proiektuak ez du bermatzen udalerriko gainerako kultur instalazioek beren zeregina modu eraginkorrean beteko dutenik. Kexa ugari jasotzen ditugunean, dela Kultur Etxeak ez dabilzala ondo, dela diru laguntzak urriak direla edo ordaintzeko berandutzen direla, ezin dugu asebetetik sentitu horiek mantentzeko hartu diren aurrekontuaren kopuruekin. Alde batetik Udal Aurrekontuak KULTUR LEIOAREN funtzionamendu egokirako behar diren funtsak bermatu behar baditu, ezinbestekoa da udalerriko gainerako kultura instalazioek baliabide nahikoa izatea, bestela herritarrek Kultur Etxeen eguneko funtzionamenduz adierazitako arazoak larriagotu ez ezik, udalerraren desegituratze eta desantolatzeak ere areagotuko baitira, erdiguneak mota guztietako kultura baliabide eta eskaintzak bereganatzen dituen udalerrri batean, beti ere bizileku hutsa izatera kondenatutako kanpoaldearen kaltetan.

11.- Enplegu politika. Badakigu azken urteetan ahalegin handia egin dela aurrekontuetan. Hala ere, gure talde politikoaren iritziz enplegu politikak ahaleginak bildu eta borondateak batu beharko lituzke ahalik eta emaitzarik onena

lortzeko. Enplegu politikan funtsezkoa den trebakuntzak aurten iazkoan baino kopuru askoz txikiagoa jasotzen du. Beste aldetik, antzeman dugu aurten enplegua sortzeko programa garrantzitsuei uko egin diegula, hala nola INEMeri eta AUZOLAN programei.

Esandako guztiagatik, Sozialista Taldeak berretsi egiten du Aurrekontuaren Aurreproiektua atzera itzultzeko eskaera eta Gobernu Taldearen esanetara jartzen gara guztiok ordezkaturak sentituko ginatkeen Aurreproiektua negoziatzeko.

Esan du azalpenetan luzatu beharrik ez izateko irakurri duela Osoko zuzenketa, zuzenketak Alderdi Sozialistak nahi duena argi eta garbi asko adierazten duelakoan dagoelako. Bere iritziz aurrekontu sozialista izango zenaren oinarriak finkatzen saiatu direla adierazi du eta prest daudela aurrekontu horretaz inolako arazorik eta zalantzarik gabe hitz egiten jesartzeko. Euren iritziz Leioako udalerririk behar duena eta Udal Aurrekontuan ez dagoenaren oinarriak finkatu nahi izan dutela esan du.

Ondoren azaldu du osoko zuzenketak eurentzako garrantzitsuak diren irizpide politikoak dauzkala, aurrekontua onartzea galarazten dutenak. Ogasuneko Batzordeko Buruak eduki dezakeen borondate pertsonaletik harantzago, berriro esan behar dutela euren iritziz ez dela egon aurrekontuari buruz hitz egiteko borondate politikorik, eta Udalbiltzaren gaiaz berriro jardun nahi ez duten arren, lehenago ere horretaz hitz egin baita, diru-atal hori ez litzakeela egon behar esan du eta, gainera, Udalbiltzaren gaiaz Kontuen Euskal Epaitegiak azpimarratu bide dituen irregulartasun eta justifikazioan zentratzen dela, bai eta Aurrekontuak urtarrilaren 1aren ostean onesteko motiboaz ere, eta pozten direla ekitaldi hau urtarrilaren 1a baino lehenago onesten delako.

Baita ere, EB-Berdeak taldeko bozeramaile Iñaki Gomendiorrutia Sainz jaunari erantzunez, Udalbiltzaren gaiari buruz esan du bera ez dela ikaritzen Eusko Alderdi Jeltzalea politika nazionalista egiteagatik, hori logiko eta arrazoizkotzat jotzen duela. Bera beste gauza batzuek ikaritzen dutela.

Gobernu Zentralaren funtsen bidez finantzaturako aurrekontuetako diru-ataleak buruz, Kultur Leioarako diru-atalari dagokionez esan du bere talde politikoak Udalaren esanetara jartzeko konpromisoa eduki duela eta orain ere baduela horretaz egin beharreko gestioak egiteko, baina bestela ere kontraesana iruditzen zaiola diru-atal hori errefusatu nahi duten aurrekontu batean sartu nahi izatea, aurrekontu hori onartzen ez bada ezin baita halako diru atalik izaterik izango.

Amaitzeko adierazi du osoko zuzenketa azaldutako hamaika puntuak nahiko argi azaldu direla zuzenketa bertan, eta bakarrik zehaztu nahi duela bere taldearen tradizioa dela Gizarte Ongizatearen alde jokatzeko, eta hauteskunde kanpaina Alderdi Sozialistaren gako nagusia Udal honen Sail behinena Gizarte Ongizatearen Saila izan beharko zela izanik, eta euren iritziz horrelakorik ez denez eta, gainera, gero eta gutxiago bere ustez, bada, hori esan beharra daukala.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, bere Talde Politikoak aurkeztutako osoko zuzenketari buruz, honakoa adierazi du:

Bere talde politikoak, iaz egin zuen bezala, Gobernu Taldeak aurkeztutako aurrekontu hauei osoko zuzenketa aurkeztu diela, eta aurre-gogoeta bat egin nahi diola Gobernu Taldeari.

Iaz bere talde politikoak Gobernu Taldeak finkatutako arauak betetzen zituela azpimarratu zuen, hau da, aurrekontuak ekitaldiko urtea amaitu aurretik onesten zituela. Oraingoan pozten dira aurrekontuak urtea amaitu baino lehenago onestu nahi direlako; udal kudeaketarako ona dela irizten diote Udalak bere kontuak urtarrilaren 1a baino lehenago onetsita edukitzeari. Beste kontu bat da, jakina, zer-nolako kontuan aurkeztu diren, eta horretan, beren iritziz, aurkeztutakoak ez dira onenak, ez dira Leioak behar eta merezi dituen kontuak, eta horregatik aurkeztu dute osoko zuzenketa.

Aurkeztu duten testua irakurriko duela esan du, zuzenketa honen justifikazioetan jasota dagoena, alegia:

"Joan zen azaroaren 29an Ogasuneko Batzordean aurkeztu zen 2005. urteko Leioako Udalaren aurrekontu proiektua, eta EAJ-EA alderdiek osatzen duten gobernu taldearen interesak islatzen ditu.

Gure talde politikoak ezin ditu aurrekontu hauek onartu: aurten ere Udalbiltza Erakundea finantzatzeko diru-atal bat sartu dute; proiektu baztertzaila da, euskal gizartea eta herritarrak banatzen ditu, ez die leioarren interesei erantzuten eta, azken batean, Ibarretxeren Planak adierazitako konstituzioz kanpoko proposamenaren zerbitzuan dago.

Gure taldeak ez du inoiz onartuko leioarrak eta gizartea oro har banatzen dituzten proiektuen alde edozein diru kopuru aurreikusten duen aurrekonturik.

Gainera, aurkeztutako osoko zuzenketa honetan oinarritzen da: gobernu taldeak gure udalerririk dituen arazorik larrienetako batzuei aurre egiteko erakutsi duen borondate politikorik eza.

"Leioako Hausnarketa Estrategikoa 2002" dokumentuan (Udalak berak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilbao Metropoli-30-ekin elkarlanean egindako lana) nabarmendu zen bezala, Leioaren "ahultasun" nabarmenetako bi auzo desberdinen arteko loturarik eza eta Udalerrria banatzen duen La Avanzadako errepidea ziren. Arazo larri horiek izan arren, gure udal arduradunek urte gehiegi daramate konponbide zehatzik eskaini barik, inoiz gauzatu ez diren proiektuak iragarri.

Gobernu taldeak eragingarritasunik ez duela garbi ageri da herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatean eragin zuzena duten beste gai batzuk jorrazterakoan nabari zaien geldotasunean ere, hala nola, udaletxearen ezinbesteko zaharberritzearen edo kirol instalazioak dagoen eskariari egokitzearen kasuetan. Udalak 2002. urtetik dauzka arazo horiei zelaz erantzun argitzen zuten bi ikerketa, baina hala ere oraindik, 2005eko aurrekontuan ere, ez da arazo horiek konpontzen hasiko direla pentsarazten duen ezein diru-atalik ageri.

Beste alde batetik, nabarmendu behar da gobernu taldeak oposizioko alderdi politikoei beren zeregina behar bezala betetzeko bitarteko gehiago izan dezaten aukera ukatzen jarraitzen duela.

Horregatik guztiagatik Alderdi Popular udal taldeak ez ditu aurrekontu hauek euren osotasunean onartzen eta osoko zuzenketa aurkeztu die 2005. urteko udal kontuei."

Alkate-udalburuak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Udal Aurrekontua aztertzeke denbora arazorik ez dela izan, izan ere Autonomia Erkidegoko Aurrekontua eztabaidatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko legebiltzarkideei eman zaien epea baino luzeagoa eman delako.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, honakoa adierazi du:

Oso labur hitz egingo duela esan du, azken Ogasuneko Batzordean azalpen nahikoak eman zirelako Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak aurkeztutako osoko zuzenketei buruz daukaten iritzien gainean.

Udalbiltzaren gaiari buruz, nahikoa hitz egin dela esan du, beraz bere ustez ez da horretan denbora gehiago eman behar.

Gobernu Zentraleko funtsak dituzten aurrekontuaren diru-ataleak buruz, PSE-EE-PSOeko bozeramaileari esan dio ez dela inolako aurrekontu berririk onestu behar, zor aitortua delako, eta "Hitzartutako gerakinak" izeneko diru-atala izango dela, ordaintzeke egongo dena.

Talde Sozialistak aurkeztutako osoko zuzenketa 1 eta 2. puntuei dagokienez, talde horren bozeramaileak gizarte politikan asko edo handigurarik ez dagoela dioela esan, eta Udal Aurrekontu osoaren aldean Gizarte Ongizatearen alorrak hartzen duen portzentajea azaldu du, bai eta portzentaje horrek aurtengoari

begira zenbateko igoera izan duen ere. Zentzu horretan esan dio gauza bat dela portzentaje orokorraz hitz egitea eta, beste bat, laguntzetarako erabiltzen diren portzentajeaz hitz egitea, eta Gizarte Ekintza Sailaren osotasuna aztertzen bada ikus daitekeela, zati baten aurrekontua jaisten dela, beste leku batzuetatik datozen puntuak direlako, Bake Epaitegitik eta abarretik datozenak alegia. Gizarte alorrekoak diren diru-atalei dagokienez esan du Etxez-etxeko Laguntzarako diru-laguntza %15,39 igo dela, Kontsumoko Prezioen Indizeak dakarrena baino ondotoxo gehiago; Emakumeen Jardunaldientzako diru-laguntza %20 igo dela, eta honi "Inbertsioak" diru-atala gehitu behar zaiola, hiri ondarea erosteari dagokiona, %13,50 igo dena, Harrerako etxebizitzak erosteko.

Talde Sozialistak Tokiko Agenda 21aren gainean 7. puntuan esandakoari buruz beste osoko bilkura batean jorratu zela adierazi du, eta errepikatu du Tokiko Agenda 21 aholkularitza enpresa baten bidez egiten ari denez, une honetan ez dagoela jakiterik kontzeptu horretan zenbat diru gastatuko den 2005. urtean, eta egina dagoenean eta burutu beharreko jarduerak finkatzen direnean orduan hornituko dela hasiera batean sortutako diru-atala programa burutzeko aurrekontutik behar denaz.

Alderdi Sozialistak aipatutako La Avanzadaren gaiari buruz, Udalak praktikan jar ditzakeen konponbideak ikertzeko inolako diru-atalik ez dagoela diotenean, esan du une honetan bi diru-atal garrantzitsu daudela, bi igarobideak alegia, eta La Avanzadak Ingurumenean duen Eragina ikertzeko 150.000 euroko diru-atala sartzea ezer ez esatea dela, gai horretan sartu behar denean gogotik sartuko baitira.

Alderdi Popularraren osoko zuzenketari buruz, behin baino gehiagotan irakurri duela esan du eta atera duen ondorioa zuhaitz bakarra dagoela da, Udalbiltza, eta gainerakoak zuhaitzera botatzen diren konfetiak baino ez direla, Udalbiltza dagoen bitartean ezaguna baita zer esaten duen Alderdi Popularrak.

Ez dela gehiago luzatuko esanez amaitu du, Alderdi Popularrantzat ere balio baitezake Alderdi Sozialistari eman dion azalpenak.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Gobernu Zentraletik datozen funtsetatik Kultur Etxerako diru atala bideratzeari dagokionez, ea hori ondo jorratuta dagoen ala ez, esan dubeste batzuk egin zutenez, ez dela ondo eginda egongo, ziurrenik.

Gizarte Ongizatearen Alorreko portzentajeei buruz, esan du berak ez dituela portzentaje horiek egin, Gobernu Taldeak egin dituela Aurrekontuaren Aurreproiektuan, eta berak agiri horietatik jaso eta zuzenketan jarri besterik ez dituela egin. Ogasuneko Batzordeko Buruak emandako datuaz, alegia, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko Aukera berdintasuneko Plana %58 igotzen dela-eta, hori esatea, kopurua guztira hiru milioi pezetara iristen ez denean, ez dela batere serioa adierazi du. Beste alde batetik, EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak Etxez-etxeko laguntzari buruz aipatu dituen adibideetan erratu dela adierazi du, %15,39 igo dela esan baitu, baina kopuru hori ez dela nahikoa Etxez-etxeko laguntza berrantolatzeke, aurrekontuan sartutako kopurua 2005. urtean Etxez-etxeko laguntza une honetan dagoen bezala mantentzeko behar dena baita, eta ez duela uste Gizarte Ongizateko Batzordean planteatuko denik, baina planteatzen bada, zorionak emango dizkiola planteatzen duenari, Etxez-etxeko laguntza elbarriengana ere iritsi ahal izateko, orain egiten diren ordu kopurua gaintuz. Horrela balitz %15 horrekin nahikoa izan zitekeen, baina horrela izango dela uste ez duenez, bere jarrerari eutsiko dio.

Hiri Ondarea Erosteko diru-atalari dagokionez, Ogasun eta Kontuen Batzorde Bereziko Buruak etxebizitzaren gaia kontuan hartzen dela dioela-eta, berriro esan du ea horrela den, zuzenketez jardun zuten azken Ogasun Batzordean egon zen arren, horrelakorik entzun duen lehen aldia baita. Horretaz adierazi du esandakoa gauzatzen den egunean, ondo egina dagoela esango duela berriro, duela gutxi esan zuen bezala, berak, gauzak ondo eginda daudenean, ez duelako onartzeko arazorik izaten, baina berriro esan du zenbakiek, datuek eta azken aldiko jardun politikoak

Gizarte Ongizateko Saila ez dela Eusko Alderdi Jeltzalearen Saila adierazten dutela, bere iritziz gizarte alorrean lan asko egiten duen Eusko Alderdi Jeltzaleko jendea badagoen arren, borondate orokorra ez dela horrelakoa.

Ondoren adierazi du gizarte politika ez dela gizarte ongizatea soilik eta, era berean, ez dagoela Hezkuntzan inongo erronkari aurre egiteko borondaterik ere, jarduerak lehenago zeuden bezala mantendu besterik egiten ez delako, alor horretako diru-atalak jarduerak ozta-ozta mantentzeko behar dena soilik igoz. Enplegu Sailari dagokionez esan du sail hori sortu zenean sail izarra izan zela, eta orain erabat alderantzizko sentazioa daukala; beraz, horri dagokionez zer egiteko asmoa dagoen jakin nahi duela, ez baitu uste eguneroko jarduna eta enpleguko diru-atalerako esleitutakoa ikusita enplegua sustatuko denik.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Eusko Alderdi Jeltzaleak bere talde politikoak aurkeztutako osoko zuzenketari eman dion erantzunaz harrিতa dagoela, eta horregatik hitz egingo duela, harriak botatzeaz hitz egiten hasi eta azkenean zuhaitzera konfetiak jaurtitzen amaitu duela, baina azkenean ez diola beraiak aurkeztutako osoko zuzenketari erantzun.

Bere osoko zuzenketan nabarmentzen dituen arazoak konfetitizat direla esateak, bere iritziz, Gobernu Taldearen izpiritua eta arazoak konpontzeko dagoen borondate politikoa benetan zer-nolakoak diren adierazten du. Izan ere, bere osoko zuzenketa Udalbiltzari ematen zaion diru-atalean oinarritzen da, baina hori ez da oinarri bakarra. Gobernu Talde honen eraginkortasun ezaren adibide modura nabarmentzen diren arazoak oso garrantzitsuak dira bere iritziz, eta Udalerri honetako herritarren multzoak horrela sentitzen dituela esan du. Eta bere zuzenketari erantzutean deskalifikazio horietara jotzeak, zer asmo politiko daukaten garbi erakusten duela, Udalerri honetan aspalditik dauzkagun oinarritzko arazoak konpontzeko Gobernu Talde honek duen gaitasuna zein den garbi adierazten duela, gobernu nazionalistak hogeita piku urtez izan ondoren arazoek beren horretan jarraitzen dute-eta.

Eztabaidaren ostean, PSE-EE-PSOE eta PP udal taldeek aurkeztutako osoko zuzenketak bozkatu dira.

PSE-EE-PSOE TALDEAK AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAREN GAINEKO BOZKETA:

Udalaren osoko bilkurak gaia bozkatu du, eta honakoa izan da emaitza: **aurkako hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotziena eta EAko zinegotziarena; **aldeko zortzi boto**, PSE-EE-PSOeko lau zinegotziena eta PPko lau zinegotziena; eta **bi abstentzio**, EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, **GAITZETSI** egin du PSE-EE-PSOE taldeak 2005. urterako Aurrekontu Orokor Finkatuari egindako osoko zuzenketa.

PP-K AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAREN GAINEKO BOZKETA:

Udalaren osoko bilkurak PP taldeak 2005. urterako Aurrekontu Orokor Finkatuari egindako osoko zuzenketa **ARBUIATZEA** erabaki du; emaitza hau izan da: **hamaika boto kontra**, EAJ-PNVko hamar zinegotziena eta EAko zinegotziarena; **lau boto alde**, PPko lau zinegotziena; eta **sei abstentzio**, PSE-EE-PSOeko lau zinegotziena eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Talde Sozialistaren osoko zuzenketaren alde eman duen botoa azalduko duela. Argi dago Talde Sozialistaren zuzenketan garatzen diren punturik gehienekin bat datozela, nahiz eta bertan garatzen diren irizpide batzuekin bat ez etorri, hala nola, lehenago izandako giro politikoen aldean gaur egun giro politiko desberdinaz egiten

den aipamenarekin, baina ageriko desadostasun horiek kenduta, Leioako Udalerriari dagokionez, oro har zuzenketaren izpirituarekin bat datozela, argi eta garbi.

Alkate-udalburuak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Beraiek osoko zuzenketen aurka bozkatu dutela diagnostiko orokorrarekin bat ez datozelako, eta euren iritziz Leioa urte hauetan guztietan inbertsio ahalegin izugarria egiten ari dela termino kuantitatibo zein kualitatiboetan, eta horrela jarraituko duela. Horretaz, gaineratu du Euskadin gutxi direla Leioakoak besteko inbertsio publikoak egiten dituztenak, herriko arazo nagusiei aurre egiteko gai diren inbertsioak, alegia (auzuneen arteko loturak, ekipamendu publikoak sortzea), eta zintzoki uste du Gizarte Zerbitzuen Arloari buruzko planteamenduak ere antzekoak direla. Amaitzeko, esan du aurrekoetan halako aurrekontuaren antzekoen alde bozkatu bazuten, abagunea bestelakoa zela izango zela, ziurrenik.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du, bere Talde Politikoak aurkeztu dituen zatizko zuzenketak direla-eta.

Zatizko zuzenketek osoko zuzenketan jasotako planteamendu batzuei zenbakiak jartzea eskatzen dute, denei ez jakina, aurrekontu bat zuzentzeaz ari direlako hitz egiten, eta ez aurrekontu berria egiteaz; zuzenketarik gehienak Gizarte Ongizatera eta Hezkuntza Arloetara bideratzen direla esan du. Guztira 37 zatizko zuzenketa dira, eta baten bat onestea gogoko zuketela gehitu du, baten bat interesgarria izango dela uste baitu.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du, bere Talde Politikoak aurkeztu dituen zatizko zuzenketak direla-eta.

Esan du bere talde politikoak aurkeztutako osoko zuzenketa ezetsiz gero, aurrekonturako zatizko zuzenketak paratu dizkiotela, guztira 1.236.000 €takoak, udalaren kudeaketaren arlo desberdinei buruz, eta orain aurkezten ari diren kontuak nabarmen hobetuko lituzketela, bere ustez.

Esan du proposatzen dituzten gastu desberdinak finantzatzeko zerga desberdinetan sarrera handiagoak izatea aurreikusi dutela eta, gainera, Gobernu Taldeak proposatu dituen zenbait partidatan hainbat murrizketa ere planteatu dituztela. Gehitu du, laburbilduz, Terrorismoko Biktimen Elkarteentzako diru laguntzak proposatzen dituztela, justiziazkoa baita, beren ustez, Udal Erakundeetatik ere Terrorismoaren Biktimen Elkarteak babes daitezzen eta, alde horretatik atzeratu samar dabilzala uste duten arren, inoiz ez dela berandu terrorismoaren erasoak jasan dituen eta oraindik ere jasaten dituen kolektiboari halako subentzio eta laguntzak eman dakizkion proposatzeko.

Inbertsioen atalari dagokionez, hainbat proposamen egin dituzte, hala nola, La Avanzada estaltzea, Lamiako eta Txorierrri arteko sarbide berria, Udaletxea berriztatzea, La Avanzadako lurpeko pasabideak hobetzea, Planetario eta Ingurumen Ikasgela egitasmoa, azoka eremuko egitasmoaren azterlana, herriarteko mikrobis sarrerako azterlana; Euskal Herriko Unibertsitateari laguntzeko aurreikusita dagoen dirua ere, batez ere artea kalean izatera, hau da, arte jarduera eta azterlanak egitera xedatzen dena, Udalak, ahal duenaren heinean, Leioako campusa hobetzera xeda dadin ere eskatu dute, duela gutxi agerrarazi baitira campusaren azpiegiturak dituen gabeziak, eta beren ustez, ona litzateke Udal honek bide horretan urratsa egitea. Udaleko azoka berriztatzeko eta auzuneak hobetu eta edertzeko azterlanak egitea ere proposatu dute. Era berean, udaleko talde politikoetako langileentzako diru partida bat proposatu dute, eta kontratazioko udal bulegorako indarpena ere bai.

Kulturan, kirolean eta gazterian behin eta berriro ukatu izan zaien gazteentzako astialdiko egitarau alternatiboa proposatu dute berriro, "Leioa Hiria" literatura saria, Gabonetako kultur ekitaldiak indartzea, duela gutxi Batzordean udalerrriak, beren ustez, merezi dituenen pareko ekitaldi garrantzitsu edo handiagorik egiteko dirurik ez dagoela esan baitzaie, kultur eta kirol taldeentzako diru gehiago

eskatzen dute, udalerriri izena emango dion atletismo froga garrantzitsuren bat antolatu eta finkatzea, urriaren 31ren ospakizuna bultzatzea, edo ospatzea, 475. urtemuga handiki ospatu eta gero, Gobernu Taldea ospakizunaz ahaztu dela ematen baitu, eta egun ez da ospatzen; egun ona dela uste dute, motibo ona udalerrria sortzeko, herria egiteko eta Leioarentzat ospakizun eta jai eguna izateko; berreskuratu nahi lukete.

Hezkuntzan birziklatzeari eta iraunkortasunari buruzko eskola ekinaldia egitea proposatu dute, eta Eskola Osasunaren arloan tabakoaren aurkako ekinaldia bideratzea.

Gizarte Ongizateko arloa, beraiantzat funtsezkoa da, edozein udalarentzat hala dela uste duten arren eta, horregatik, gizartean sortzen ari diren arazo berriak jorratzen edo borrokatzen dituzten partida desberdinak planteatu dituzte; pobreziaaren aurkako borrokan premiazko aterpe-emateetarako diru partida bat proposatu dute, tratu txarrak jasandako pertsonei aldi batez aterpea emateko beste bat, tratu txarrak pairatu dituzten emakumeentzako egitarau berritzailea, pilotua, laguntza telematikokoa proposatu dute, aurreikusi gabeko gizarteko premia arazoetarako diru partida berria; anorexia eta bulimiari buruzko aholkularitza bultzatzea proposatzen dute, eta familia barruko indarkeriaren aurrean, gizartean duela gutxi azaleratzen ari den arazoan, hau da, seme-alabengandik tratu txarrak jasaten dituzten gurasoen arazoan, laguntza psikologikoa ematea, ahalmen urrikoen arloan tratu psiko-pedagogikorako dauden laguntzak gehitzea ere bai; Leioan dauden langile etorkinen gaineko azterlana egitea ere proposatu dute, udalerrri guztietan azaleratzen ari den fenomeno da, eta Leioan ez da jorratu, edo ez behar beste behintzat. Gainera, haurtzaindegietako ordainketak, alkoholaren kontsumoaren gaineko ekinaldiarenak, eta ezgaitu larrientzako diru atalak gehitzea ere proposatu dute.

Ingurumenean Udondo ibaiko hezeguneari buruzko azterlana egitea proposatu dute; Eusko Jaurlaritzak duela gutxi hor inguruan azterlan bat egin du, eta garaia da, beren ustez, Erandioko udalarekin batera, eremuaren berariazko azterlana egin eta nola babestu eta zain daitekeen bilatzeko. Leioako fauna, flora eta geari buruzko azterlana egitea eta gure udalerriko gea bolkanikoari bere balioa emateko egitasmoa prestatzea proposatu dute.

Merkataritzaren alorrean, interesgarria da, beren iritziz, udalak merkatarientzako saria antolatzea, udalerriko dendari txikiarentzat pizgarri eta eragingarri izan dadin, edozein laguntza beti ondo datorrela uste dutelako.

Amaitzeko, esan du horietatik dira, funtsean, gastu gehiago proposatzen duten 38 zuzenketak eta finantzaketako 8 zuzenketak, eta horrekin udalaren aurrekontua izugarri hobetuko litzatekeela uste dutela.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, esan du Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren, bien zuzenketetan arazo handia dagoela, hau da, zuzenketa horiek finantzatzeko Udaltzita gaitz horren aipamena egiten dutela; ez da diru asko, ez, eta era berean langileen lansariekin finantzatu nahi dituztela, lansari horien zati batean, besteak beste, datorren urterako lansarien igoeretako jarrita dauden kopuruak jasotzen baitira; berari oso kontuz ibiltzeko gaia iruditzen zaio gastu gehiago langileen lansarietarako diren ataletatik finantzatu nahi izatea.

Esan du, gainera, Alderdi Sozialistak gastu murrizketa batzuk egiten dituela, jaietan, esaterako eta, hori ikusita, berak haxe galdetzen dio bere buruari: zenbateraino gasta daiteke jaietan? Zeren diru atal batzuk murrizten badira, esaterako, ez dago Txorierriko auzunean jairik egiterik.

Era berean, Antzerki Azokara xedatutako dirua murrizteak Antzoki Azokari kolpe gogorra ematea da, bere iritziz, argi dago Leioak ezin duela dena batera eduki, hau da, Kultur Leioa, futbol zelairik onenak, Kontserbatoriorik onena eta, gainera,

Planetarioa eta azoka eremua, ezinezkoa da. 4. atalean gauza bera, aukeratu behar da.

Alderdi Sozialistak Lehiaketa, Hitzaldi eta Filmetan aurrekontua jaitea proposatzen du; hori funtsezkoa da Kultur Zentroarentzat eta, alkateak esan du lan intentsitatea jaitsi nahi bada, orduan aurrekontua jaitea onar litekeela. Elkarkidetzarako kuotak direla-eta, esan du bazekiela Alderdi Sozialistaren aldetik Elkarkidetzarako eragozpen ideologikoa zegoela, guztiz errespetagarria dena, baina onartutako betebeharrak direnez, ezin zaiela gastatzeari utzi.

Gastu partidetan, berriz, esan du proposatutako gauza asko guztiz egingarriak direla Gobernu Taldeak prestatu duen aurrekontuarekin.

PPk aurkeztu dituen zuzenketei buruz, kosmetikoa dela esango lukeela erantsi du, oso ondo dagoelako gauza jakin batzuk egingo direla esatea, Planetarioaren kontua azpimarratu du, sarritan esan diola berak ez duela ikusten, baina Leioa garrantzitsua eta handia da, Bilbo baino handiagoa ere bada, baina dena ezin da egin, ezin du dena eduki, futbol zelairik onenak, Kontserbatorio ona, Kultur Leioa eta abian jarriko diren azpiegitura berriak.

PPk atzeratuak direla esaten duten ekipamendu batzuei buruz funtsik gabeko salaketa egin duela esan du, horretaz dena batera ezin dela egin adierazi du, eta inbertsioaren aldetik urte hauetan egin den gastua oso garrantzitsua izan dela. Beraz, berriro dioela azpiegituran eta ekipamenduan Leioak urte hauetan izan duen gastua ikusgarria izan dela, eta horrela izaten jarraituko duela, eta inbertsioen kapituluan aurrekontuen gauzatzea ikusgarria ez eze, berebizikoa ere izan dela esango lukeela. Dena dela, eraikin honi dagozkien erabakiei buruz, laster proposamen bat egingo dela adierazi du, eta kirol ekipamenduari dagokionez, Kiroldegian diru asko gastatu behar dela, Sarriengan gastatu den bezala, eta epe laburreko erabakiak hartu beharko direla.

Azokari dagokionez, zehaztu du ez dela udal azoka izango, azoka pribatua baizik, eta proiektu hori oso modu garrantzitsuan lagundu dela, PERCO proiektuaren bidez Eusko Jaurlaritzaren eta udalaren laguntzak bideratuz, hau da, azokan lanean ari direla, eta berriro esan du azoka ez dela udal azoka, azoka pribatua baizik.

Apainketari buruzko zuzenketen gainean esan du Aurrekontuan egon badaudela horren inguruko diru-atalak, beste izen batez izendatuta egon daitezkeen arren, apainketaren barruan sartzen baitira lorategiak, plazak, udal altzariak, argi aldaketak, energia aurrezteak eta abar.

Zuzenketa batzuk zehazteke daude, hala nola, Gobernu Taldeak diru-atal handien modura jasota dituenak, gizarte politikaren inguruko poltsak, PPk proposatzen dituen gauza asko, horietako gauza asko bideragarriak direla.

EHUri buruz, gai honetan sartzeari akats larria irizten diola esan du, unibertsitateko campusa ez delako udal eskumena, Eusko Jaurlaritzaren eta unibertsitateko autonomiarena baizik. Beraz, gai hau ez dela udalaren ardurak, eta beste aldetik campusarekin batera lanean ari dela adierazi du, hainbat gauza elkarrekin ari direla egiten, eta etorkizunean gauza gehiago ere egingo direla, baina udal erakundeak campusa birmoldatzen hasi behar duela esateak zentzurik ez daukala.

Leioako fauna, flora eta gari edo Udondo ibaiko hezeguneari buruzko ikerketen gainean, Eusko Jaurlaritzaren ikerketa bat dagoela esan du, eta ez duela zentzurik bi aldiz gastatzea. Amaitzeko adierazi du zuzenketa guztiei zor dien errespetutik bere iritziz Gobernu Taldeak aurkeztutako aurrekontua askoz hobea dela.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Lehenengoan hitz egin duenean gai bat komentatzea ahaztu zaiola, alegia iaz Osoko Bilkuran esan zuela Aurrekontuak berari gustatzen ez zitzaion zerbait literarioa zuela, eta gainera ez zitzaiola inori gustatu, diru-atal ugari Gizarte Laguntza modura izendatzen baitzuen, eta hori aldatzen saiatuko zirela esan zela orduan, baina

orain aurkeztu den Aurrekontuak ia 20 diru-atal baino gehiago berriro gizarte laguntza modura izendatu dituela berriro. Berak ez zuela gizarte laguntza zer den definitu nahi, baina bere ustez gizarte laguntza ez da gizarte politika.

Ondoren adierazi du Alderdi Sozialistak osoko zuzenketa eta zatizko zuzenketak egin dituenen bazekiela zer egiten ari zen, ez dituela egin egite aldera, eta kasu batzuetan beharbada erratu direla onartzen duela, Aurrekontua ez baitute aurrekontuaren egileek bezain sakon; lansarien igoeretak erabiliko den zehaztugabeen diru-atalari buruz ari dela hain zuzen, eta, zentzuzkoa denez, Alderdi Sozialistak ez duela nahi langileak aurten igoerarik gabe gelditzea, duela gutxi ARCEPAFE izenpetu dela, baina, jakina, egia ere badela eurek horretaz guztiaz dakitena ez dela beste batzuek dakitena beste.

Ogasun Batzordeko Buruak galdetzea zeukala esaten ziola adierazi du, eta horri esan behar diola azalpenak galdetzen ibili beharrik gabe eman daitezkeela eta, edozelan ere, gastua handitzeko zuzenketetarako finantzazioa bilatzen zuten gainerako diru-ataletan badakitela zer egiten duten. Alkate jaunak euren proposamenaz Antzerki Azoka aurrekonturik gabe lagatzen dutela esan duena dela-eta, ez dela egia gaineratu du, Antzerki Azoka iaz baino askoz diru gehiagorekin lagatzen dutelako. 30.454,09 euro bakarrik kendu diotela, hau da 5.000.000 pezeta baino zerbait gehiago, eta diru atala 189.549 eurotan utzi dutela, hau da 30.000.000 pezeta baino gehiagotan. Halaber, Alderdi Sozialistak ez du esan Leioan jaiak egiterik nahi ez duenik, edo Leioan antzerkirik nahi ez duenik; Alderdi Sozialistak esan duena da larregi samar iruditzen zaiola Leioako jaiak bikoiztea. Ogasun Batzordean azalpen bat eman zuela esan du, mundu guztiak, urteko edo hileko aurrekontua egiten duenean, behin Gizarte Ongizatearen oinarriko beharrak betetzen dituenen, orduan begiratzen duela zenbat gasta dezakeen antzerkian edo jaietan. Kontua da Gobernu Taldeak pentsatzen duela Leioako beharrak asebeteta daudela eta Sozialistek, aldiz, ezetz pentsatzen dutela. Eurek pentsatzen dute Leioan herritar mordoa dagoela Gizarte Premiako diru-laguntzak eskatzen joan eta dagozkien %50a ematen zaiena. Beraz, badago irizpide desberdintasun bat, baina ez du onartuko Alderdi Sozialistak Txorierrin jaiak egiterik nahi ez duenik esaten ibiltzea, hori izan ere ez delako egia. Alderdi Sozialistak ez du gastua bikoizterik nahi, eta orain arte Txorierrin jaiak izan dituztela, eta pentsatzen du jaiak izaten jarraituko dutela eta Alderdi Sozialistak nahi duena hau da: Txorierrik ordenagailu bat behar duenean bi urte itxaroten egon behar ez izatea konpontzeko, edo diru-laguntza behar duenean, itxaroten egon beharrik ez izatea. Ogasun Batzordeko Buruarekin hitz egiten duenean oso azkar egiten dela adierazi du, eta tramite horretatik pasatu behar ez izatea nahi duela.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Azalpen bat eman nahi zuela adierazi du, ez delako egia jaietako aurrekontuaren diru-atala bikoizten denik, aurrekontuan sakabanatuta zeuden diru-atalak berrantolatu besterik ez dutela egin eta, horregatik, aurten EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak lan handia egin duela diru-atal jakin batzuek kontzeptu horren gastu guztia bil dezaten, jaietako aurrekontua lau diru-atal desberdinetan badago diru-atal bakarrean egonda baino kontrol gutxiagorekin gastatzen baita, beraz kontua ez da jaien igoera izatez dagoen gastuari adituz bikoiztu denik, baizik eta jaietako aurrekontuaren babespean benetako igoera %3koa dela. Gauza bera gertatzen da Antzerkiaren gaiarekin, hau da, diru-atal desberdinak erabiltzen ziren eta Ogasuneko Buruaren asmoa izan zen Antzerkiaren gastu guztia diru-atal bakarrean biltzea dena hobeto kontrolatuta edukitzeko, eta horren igoera ere %3 ingurukoa da.

Gizarte Laguntzaren gaiak arrazoia duela adierazi dio PSE-EE-PSOeko eledunari, berak bere garaian Kontabilitate Plan Orokorrekin eta informatika programarekin arazoak izango zirela ohartarazi zion arren, saiaturik direla berriro ere.

PPko **Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Lehendabizi bere zuzenketak kosmetika modura definitu izanaren gainean zuzenketa horien atzean bere talde politikoaren ahalegina dagoela esan du, udal kontuak hobetzeko benetako ahalegina, ahalegin zinezko eta arduratsua.

Bigarrenik, aurkeztu diren zuzenketa guztiak atzera bota direla azpimarratu behar dela esan du, ez baita ulergarria Gobernu Taldeak aurkeztutako ezein zuzenketa gaitzesgarri eta onartezintzat hartzea, euren iritziz zuzenketa horiek arrazoizkoak direnean eta Aurrekontua hobetze aldera eginda daudenean, eta zentzu horretan nabarmendu behar dela, euren ikuspegitik, Gobernu taldeak zuzenketa guztiak atzera bota eta horietako bat ere kontutan ez hartzeak duen alde negatiboa, eta Gobernu Talde honen izaeraren erakusgarria dela uste duela.

Egin diren iruzkinetako baten gainean eta zuzenketek bere ustez daukaten balioa defendatzearen, Planetarioaren proiektuari izen ona kentzen zaiola-eta, bere iritziz Udal honi ospea eman diezaiokeen azpiegitura dela esan du, duela urte asko ari direla planteatzen, Udalerri honentzat ez dela azpiegitura garestiegia eta, gainera, ondoan unibertsitateko campusa daukatenez, balio handiagoa emango liokeela, eta bere iritziz ez du merezi modu horretan deskalifikatzea.

Udal azokaren gaian, esan du pribatua dela, bai, baina azokak dituzten beste udalerri batzuetan halako merkatuak ekipamenduz hobeto hornitzen gogotik saiatzen ari direla, udalerraren erdigunean iraun dezaten funtsezkoa baita; hemen, zorionez, oraindik eusten dio, oztopoak oztopo, eta uste dute hemengo udala ez dela profesional horiek beren lana indartzeko merezi duten ahaleginik egiten ari, beste udalerri batzuetan egiten ari diren bezala.

Eusko Jaurlaritzak hezeguneaz egin duen azterlana dela-eta, esan du ez dela babes neurri zehatzik finkatu, eta udalak horretan erantzukizunik baduela uste dute.

Azkenik, La Avanzadako pasabideen gaian, esan du aurrekontu honek diru atal bat aurreikusten duela datorren urtean egin daitezen; beraiek ez daude pasabide horien aurka, baina uste dute ez dela irtenbide bakarra, ez eta Leioa eskatzen ari dena ere; horregatik, La Avanzada bezain agerikoa den arrailaren irtenbide modura pasabideak planteatzea ez da serioa, beren ustez, eta ezin dute onartu; zatizko irtenbide modura onar lezakete, bai, baina ez agerikoa den arazo baten erantzun modura.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

PPko eledunak Gobernu Taldeak La Avanzadarentzako irtenbide modura pasabide horiek planteatu dituela esatea da serioa ez dena, beraiek ez baitute halakorik inoiz esan eta pentsatu ere ez dutela hori pentsatzen, gainera.

Ondoren bozkatu egin dira PSE-EE-PSOE eta PP taldeek aurkeztutako zatizko zuzenketak:

PSE-EE-PSOE TALDEAK AURKEZTUTAKO ZATIZKO ZUZENKETEN GAINEN BOZKETA

Udalaren osoko bilkurak gaia bozkatu du, eta honakoa izan da emaitza: **aurkako hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotziena eta EAko zinegotziarena; **aldeko lau boto**, PSE-EE-PSOeko lau zinegotziena; eta **sei abstentzio**, PPko lau zinegotziena eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, **GAITZETSI** egin ditu PSE-EE-PSOE taldeak aurkeztutako zatizko zuzenketak.

PP TALDEAK AURKEZTUTAKO ZATIZKO ZUZENKETEN GAINEN BOZKETA

Udalaren osoko bilkurak gaia bozkatu du, eta honakoa izan da emaitza: **aurkako hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotziena eta EAko zinegotziarena; **aldeko lau boto**, PPko lau zinegotziena; eta **sei abstentzio**, PSE-EE-PSOeko lau zinegotziena eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, GAITZETSI egin ditu PSE-EE-PSOE taldeak aurkeztutako zatizko zuzenketak.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere taldea Alderdi Sozialistak aurkeztutako zuzenketetan zergatik abstenitu den argituko duela.

Gizarte Ongizatearen alorrean bat datoz Alderdi Sozialistaren kezkarekin, baina zuzenketen multzoan, oro har, udal batean garrantzitsuak diren arlo batzuetako inbertsioak edo jarduerak egiteko konpromiso handiagoa falta da, beren iritziz eta, alde horretatik, ez dituzte zatizko zuzenketa guztiak onetsi, oreka falta dela iruditzen zaielako. Gainera, auzoak administrazioaren aldetik deszentralizatzen azterlanaren gaineko pare bat zuzenketa dagoela gehitu du, eta beren ustez lehenengo udaletxetik eskaintzen diren zerbitzuak hobetu behar dira, administrazio zerbitzuak deszentralizatzea planteatu baino lehen, iazko aurrekontuen eztabaidan ere adierazi zuten moduan.

Amaitzeko, esan du Mendibile Jauregia Elkarteari gastua murrizteko proposamena dagoela; elkarteak ia aurrekonturik gabe uzten dutela, 6.000 euroekin, eta beraien ustez, nola kudeatuko den jakiteko zain dauden arren, udalerriantzako proiektu interesagarria irizten diotela, onuragarria izango dela, eta ez datoz bat elkarte horrentzako aurrekontuko zatia hustearekin.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak honakoa adierazi du:

Zergatik abstenitu diren, eta zergatik izan duten jarrera hori argituko duela.

Esan du hau ez zela beren aurrekontua, puntu batzuetan nabarmen urruntzen zaiela, eta batez ere prozedurak balio ez duela uste dutela. Askotan esan dutenean sakonduz, eta proposamen batzuk hizpide dituela, esan du beste urte batzuetan oposizioko taldeek aurrekontu egitasmoan parte har dezaketela entzun izan dela, eta horrek oposizioarentzako lan boluntario huts modura eta Gobernu Taldekoentzat lansaridun jardun modura planteatu behar ez duen lan gaitasuna eskatzen duela, halaberrez. Horrekin oposizioko taldeek beren esku jartzen den zeregina Gobernu Taldean parte hartzen duten Zinegotziek bezala formalki parte hartuz betetzeko daukaten arazoari behin betiko konpon dadin aldarrikatu nahi du.

Aurrekontuaren proiektuan bat ere gustatzen ez zaizkien beste alderdi batzuk ere badirela esan du. Orain Mendibile Jauregia Elkarteak diruz husterik ez dagoela entzun ari diren arren; berak uste du hori desagertu beharko litzatekeela, Gaztetxea kentzearen ondorioz Kultur Etxe edo halako antzeko baten ondorioz agiri ofizialen baten Txakolin Etxea deitu zaiena sortu den moduan, hori guztia ibilbide bat da, jarduera horrek guztia bideratzen deneko logika, joan nahi den tokiaren aurkakora doana.

Beste alderdi asko eta askorekin ere ez daudela ados esan du, esaterako, beste batzuetan ekarpen batzuekin hobetuko zirela uste zuten arren, gero beti oso modu eraginkorrean gauzatu ez diren alderdi batzuekin. Aurten, esaterako, ez da Pinueta Planik aipatu, lehenengoz, aurrekontuetan, ekarpenen zuzenketetan, eta badira beste hainbat gauza aipatzen ez direnak, edo airean geratzen direnak, eta gero proposamengileen aldetik eta zuzenketagileen aldetik oso jarrera itxiko eztabaidak sorrarazten dituztenak; horrek esan nahi du ez dela nora joan nahi den, eta nora joan nahi ez den argitzeko eztabaida politikorik izan, urtea amaitzerako jarrita zegoen helburua finkatu ondoren (hori laudagarria da eta neu naiz zoriontzan lehenengoa),

baina txarrena da aurrekontuak ondo landu ez direlako eta horien inguruko eztabaidarik izan ez delako lortu dela.

Esan du Alkate jaunak berriro esan dezakeela legebiltzarkideek beste denbora izan dutela udal aurrekontua aztertzeko, baina jakina, alkatea, legebiltzarkideak bezala, horretaz bizi eta horretan aritzen da, eta gainerakook, udal honetan liberatuta ez dauden oposizioko kideok barne, ordea, lanera joan behar dugulako arazoa daukagu.

Berriro esan du hasieratik igarri dela Gobernu Taldeak aurrekontu egitasmoari eusteko jarrera argia zuela; zuzenketak irizpenerako bideratu ditu, biri ezik gainerakoei ezezko botoa eman die, mamian bat etor zitekeen arren, horiekin bat egiterik ez duela argituz, bera ez delako oraingoan Dominikar Errepublikan egon, lehenago Saharan ere egon ez zen bezala, baina munduko beste toki batzuetan ere gauzak gertatzen direnez, ez duela diru laguntzaren zati handi bat zuzenean helburu zehatzetarako hitzartzerik gogoko. Esan du gaur bertan senidetze bat onetsi dela, oso txalogarria, oso ona, baina badaezpada, errazago onesteko-edo, kosterik ez dakarrela esan zaigu eta, hementxe dauzkagun hauek, berriz, oso antzeko beste batzuk arbiatu izan dituzte.

Amaitzeko esan du elkarrizketarik gabeko aurrekontua dela, eta sakon aztertu ez duen arren, berak ondo ikusten ez dituen gauza gehiegi dituela, eta hobetu beharko lirakeen gauza asko ez direla aipatzen; aurrekontu hauetan txarrena nola egin diren da.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Pinuetako Plan Bereziak %44 hazi den diru-atal berezia daukala.

Jarraitu du EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunari egin duen lan guztia eskertu nahi diola esanez; ez dago liberatuta, ez da Alkatea, ordu asko sartu behar dituen lana dauka, beste batzuek bezala, baina Alkateak baino ordu gehiago eman dizkio aurrekontuari, eta bereziki eskertu nahi dio aurrekontuak prestatzeko erabili dituen arratsalde, gau eta asteburuetako ordu piloak, sarritan Gobernu Taldeko kideekin tirabiretan, horixe baita, azken batean, Ogasun Arloko buru baten zeregina.

Azkenik esan du EAJ-PNV eta EA taldeek aurkeztutako zatizko zuzenketa biak jasotzen dituen Ogasun Batzordeko irizpena bozkatuko dela.

EAJ-PNV ETA EA TALDEEK PROPOSATUTAKO ZUZENKETAK JASOTZEN DITUEN OGASUN ETA KONTUEN INFORMAZIO BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENAREN GAINIKO OSOKO BILKURAREN BOZKETA ETA ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak gaia bozkatu du, eta honakoa izan da emaitza: **aldeko hamaika boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotziena eta EAko zinegotziarena; **aurkako hamar boto**, PSE-EE-PSOeko lau zinegotziena, PPko lau zinegotziena eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du 2005. urterako aurrekontu orokor finkatua, EAJ-PNV eta EA taldeek proposatutako zuzenketa biak barne, onestea, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean azaldutakoaren arabera.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

13.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-11-12TIK 2004-12-17RA.

Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeak kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

14.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

15.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Honako eskari eta galdera hauek egin dira:

1.- **PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

A) Eskaria: Azaroan Leioako Udalak Europako Konstituzioari laguntzeari buruzko mozioa aurkeztu zuten Barne Araubideko Batzordean, Bozeramaileen Batzarrean jada aipatu zuenez. Batzordeak aldeko irizpena eman zion proposamena osoko bilkuran aurkezteari, eta eguneko aztergaien zerrenda ikustean, gai hori agertzen ez dela konturatu dira.

Horri dagokionez, bigarren aldiz gauza berdina gertatu zaiela adierazi du. Orain dela gutxi, udalaren urriko osoko bilkuran, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Liburutegiari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzko mozioa aurkeztu zuten Barne Araubideko Batzordearen bidez, udalaren osoko bilkurak azter zezan, eta berdina gertatu zen, hau da, ez zen eguneko aztergaien zerrendan sartu, Udalaren osoko bilkurak aztertzeko Batzordeak aldeko irizpena eman zuen arren.

Gobernu Batzarrak edo kasu honetan alkateak Udalaren osoko bilkuraren eguneko aztergaien zerrendan egokitzen dituen gaiak sartzeko duen irizpidea errespetatzen dutela adierazi du, baina Alkateak mozioak proposatzen dituzten alderdiei mozio horiei buruz zein asmo duen jakinarazteko eskatu du, bere eskaria horretan oinarritzen dela. Horrela, behintzat, talde politikoei pentsatu ahal izango dute zer egin aurkeztu dituzten mozioekin: presazko mozioen moduan aurkeztuko dituzte edo ezartzen den ildoan aurkeztuko dituzte? Nolanahi ere, talde politikoei esan beharko lekieke zer gertatuko den aurkeztu dituzten mozioekin.

Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Xabier Olabarrieta Arnaiz PPko bozeramaile jaunak arrazoi osoa duela adierazi du, eta barkamena eskatu dio, hori jakinarazteko deitu behar baitzion.

2.- **PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

B) Galdera: Galderaren aurretik azalpen txiki bat emango duela adierazi du. Pasa den abenduaren 13an, astelehenean, lan-bilera bat egin zen Kultur Leioan, Udal honek bultzatutako Leioako Plan Gaztearen inguruan. Lan-bilera etxebizitza, osasun eta gizarte ekintzari buruzkoa zen. Bilera horretara lehenengo alkateordea, Berdintasunerako zinegotzi eskuordea eta bera bertaratu ziren, Udaleko zinegotziak diren aldetik, baita Plan Gaztearen koordinazioa burutzen duen enpresaren moderatzailea, Kultura Saileko teknikari bat, eta udalerriko erakunde ezberdinen ordezkariak jarduten zuten bost gazte ere.

Bilera hasi aurretik, horretan parte hartzen zuten pertsonetako batek ETA erakunde terroristako presoekiko elkartasun-goiburu ezagun bat zuen kamiseta janzten zuela konturatu zen, eta orduan bildutakoen artean horrelako goiburua egonda bilerak aurrera jarraitzea edo hastea desegokitzat jotzen zuela adierazi zuen. Horregatik, moderatzaileari eskatu zion pertsona horri kamiseta kentzeko edo bileratik joateko eskatzeko. Moderatzaileak ez zuen egokitzat jo haren eskaria, eta hori ikusita, eta bileran zeuden bost gazteetako bik eskubide oinarrizkoenak egunero urratzen dituen erakunde terroristarekiko elkartasuna adierazten zutela-eta Leioako gazteen etxebizitza, gizarte-ekintza edo osasunari buruz hitz egitea bidezkoa ez zela kontuan hartuta, bileratik irten egin zen, bertan gustura egongo ez zela baitzekien.

Hurrengo egunean, abenduaren 14an, hain zuzen ere, Kulturako zinegotzi eskuordeari deitu zion bere talde politikoaren jarrera jakinarazteko: mota horretako pertsonak Plan Gaztearen lan-bileretara joateari uzten ziotela jakinarazi arte, bere taldeak ez zuen parte hartuko aipatutako Planaren bilera gehiagotan. Jada adierazi duenez, iruzkina abenduaren 14an egin zuen, eta osoko bilkuraren egunean, hots, abenduaren 23an, oraindik ez du jaso Kulturako zinegotzi eskuordearen inolako jakinarazpenik.

Horri dagokionez, beste ezer baino lehen une horretan bileran zeuden lehenengo alkateordearen eta Berdintasunerako zinegotzi eskuordearen jarrera adierazi, edo hobeto esanda, salatu nahi du Udalaren osoko bilkuran. Izan ere, ez zuten inolako iritzirik agertu, alderdi demokratiko bateko ordezkari bat udal laneko bilera batetik joan behar izan zela, erakunde terrorista baten aldeko bi pertsona bertan geratzen ziren bitartean.

Oraindik ere Kulturako zinegotzi eskuordeak horri buruzko jakinarazpen bat ematearen zain daudela esan du berriro, Udalaren osoko bilkuran Kulturako zinegotzi eskuorde horren jarrera ere salatu nahi duela adierazita. Bistan denez, jarrera hori lehenengo alkateordeak eta Berdintasunerako zinegotzi eskuordeak erakutsitakoarekin bat dator, bilera hartan berak erakutsi zuen eta bere ustez zilegi zen jarrerarako erabateko axolagabetasuna agertu zuten eta.

Amaitzeko jarrera horiek jada salatuta daudela adierazi du, eta berriro galdetu nahi dio Kulturako zinegotzi eskuordeari zein neurri hartu dituen Kulturako Zinegotzigoak, ETA erakunde terroristako presoekiko elkartasun argia erakusten duten pertsonak edo elkarteek Plan Gaztearen bileretan parte hartzeari buruz.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin adierazi dio zinegotziak ez diola erantzungo, berak baizik, alkatea den aldetik. Bera bileran egon izatekotan, berdin jokatu zukeela adierazi dio. Bigarrenez, heldu zaion informazioaren arabera pertsona horrek PPko bozeramailearekin batera aurreko bilera batean parte hartu zuela adierazi du, eta gainera, bere jarrera pertsonalagatik eta bere janzkeragatik ezin da ondorioztatu ETArekin aldekota denik, Auzitegien aurrean jarri behar denik eta inork bere eskubideak kendu dizkionik. Zuzenbidea ikasi zuenean, aurreko epairik gabe ezin zaizkiola inori kendu bere eskubideak ikasi zuela azaldu du. Horri dagokionez, berak daukan informazioa dela eta, gazte horrek inoren ordezkartzan jardun ez zuela adierazi du, baizik eta bere izenean. Halaber, gazteak janzten zuen kamisetan *“Euskal Presoak Euskal Herrira”* agertzen zen; Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren interpretazioaren ustez, kamiseta hori delituzkoa izan daiteke, baina ez alkateordearen edo bilera horretara bertaratutako pertsonen ustez.

Horri dagokionez, nolana ere berak berdin jokatu zukeela adierazi du, eta gertaera horretatik politika txarra egin nahi bada, PPko bozeramailearen edo agindua jaso duenaren estilora egingo dela, baina ez Gobernu Taldearen estilora.

Alkatea den aldetik, bere lankideek bilera horretan izan duten jokaera babestuko duela adierazi du, ez baita delituzkoa izan. Ezin zaizkio inori bere eskubideak kendu, beste batek horren janzkerari buruz duen iritzigatik; baina nolana ere

ere, berari ez zaio iruditzen goiburu hori delituzkoa denik. Dena den, PPko bozeramaileari adierazi dio haren ustez kamiseta hori delituzkoa bada, poliziara edo epaile batengana joateko, baina administrazio agintaritza bati edo toki gobernu bati ez dagokio inoren eskubideak kentzea; hori ez da Gobernu taldearen estiloa eta ez da inoiz izango. Horri dagokionez, bileratik alde egiteko eskubidea zeukala eta aukera hori burutu zuela adierazi dio.

Amaitzeko, bere gobernuko lankideen jarrera babesten duela, eta horrez gain, berak berdin jokatuko zukeela adierazi du.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Horri dagokionez, lehenik eta behin adierazi du ondo dagoela alkateak egoera horretan zinegotziak babesten dituela jakitea, eta bigarrenez, erantzunik jaso ez duen galdera egin duela, horri buruz ezer egin den jakiteko. Hala ere, alkateak emandako erantzunagatik ulertzen du ez dela ezer egin horri buruz.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

PPko bozeramaileari adierazi dio galdetutakoari dagokionez, berak daukan informazioa erabilia erantzun diola, eta informazio gehiago nahi izanez gero, bidezko Batzordean eskura izango duela.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Alkateak zinegotzien jarrera babesteko moduan erantzun diola adierazi du. Gazteak jantzita zeraman kamiseta delituzkoa izateari dagokionez, berak ez duela esan delituzkoa zenik aipatu du. Izan ere, berak esan du erakunde terrorista batekiko edo erakunde terrorista bateko presoekiko elkartasuna eta aldeko jarrera erakusten zituela, delituaren gaia aipatu gabe.

Alkatea eta alkateordeak erakusten ari diren jarrera nabarmendu nahi duela adierazi du, Udalak 2002an bozkatutako Euskal Herriko gizartearen demokrazia eta askatasunaren defentsaren, eta pluraltasunaren errespetuaren inguruan egindako Adierazpen Zibikoaren aurka baitago. Konpromiso horren puntuetako batean (konpromisoetako bat zela), ondokoa adierazten zen: *“udal eremuan herritarren partaidetza eta ordezkari politikoaren eskubideak askatasunez gauzatzea sustatu eta bermatzea, aukera politiko legitimo eta demokratiko guztien pluraltasunaren errespetutik, sor daitezkeen beste legez kontrako jarduerak, mehatxu, larderia edo erasoren aurka beren eginkizun publikoa gauzatuko dela elkartasunez bermatuta”*.

Bilera horretan bera erasota sentitu zela adierazi du: ezin zen bertan geratu, bere aurrean zegoen pertsonak erakunde terrorista bateko presoekiko elkartasuna adierazten zuela. Ziur aski, pertsona horiek libre egongo balira, izkinan buelta emanda egongo lirake hilketa bat gauzatzeko, eta horregatik, bere alderdi politikoak eta Alderdi Sozialistako zinegotziek eskolta eraman behar dute. Hori dela eta, erasota sentitu zen, eta eraso horren aurka, Gobernu taldeko ordezkari gaituek ezer ez esatea aukeratu zuten. Hori Udaleko talde demokratiko guztiek 2002ko maiatzean sinatutako Adierazpen Zibikoaren aurka doala salatu du. Bileran bera bakarrik altxatu ez zela adierazi du; izan ere, Kulturako teknikaria ere altxatu zen eta berarekin hitz egitera joan zen. Berak faltan nabaritzen du jendea altxatu, berarekin hitz egin, eta behintzat, berak esan beharrekoa entzun ez izana, eta lehenengo alkateordeak eta Kulturako zinegotzi eskuordeak ez dute horrelakorik egin. Ez dute sentiberatasunik izan alderdi demokratiko bateko zinegotzi batekin hitz egiteko, jarrera zehatz bat adierazten duen pertsona jakin bat agertzeak (bere ustez, legez) erasota sentitu denean.

Amaitzeko, hitz egiten jarraitu nahi ez duela adierazi du. Agian berak gehiegi espero du; izan ere, beste jarrera bat espero zuen Alkatetzatik eta Gobernu Taldetik, oro har.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin garatzen ari diren politika ikusita, berari PPko bozeramailea den aldetik paper hori egitea tokatzen zitzaiola adierazi dio. Baina Gobernu taldearen betebeharra herritarren eskubideak errespetatzea da, eta ez eskubide horiek kentzea.

Bigarrenez, goiburua gustukoa ala ez gustukoa izan dezakeela adierazi du. Dena den, badaude eremu horretakoak ez izanda ere, goiburu horrekin ados dauden pertsonak, eta legegintzako ganberan gai horri buruzko erabaki positibo bat egin dutenak. Hala eta guztiz ere, ez dute kamiseta baten bidez egin (ikus puntu estetikoetik neurri handiagoan ala txikiagoan gustukoa izan daitekeena), goiburuaren gogoetaren bidez baizik. Bera ados egon daiteke goiburu horrekin, eta horri dagokionez, alkatea den aldetik horrekin ados dagoela adierazi du. Hala ere, horrek ez du legitimatzen PPko bozeramailea, alkatea den aldetik pistolekin dabilzan pertsonak jasaten dituela esateko. Gauza horiek guztiz ezberdinak direla adierazi du, eta beraz, hori esateak diskurtsoa ezin susmatuzko muga bateraino indargabetzen du.

Jarraian PPko bozeramaileari adierazi dio bera bai dagoela Adierazpen Zibikoaren aurka jarduten. Izan ere, Adierazpen Zibikoa desitxuratzen ari da interes politiko huts batengatik, ematen ez zaion protagonismoa bilatuta.

3.- EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

C) Eskaria: Osoko bilkurako pertsona jakin batzuk zuzenean salatzen dituzten adierazpenak egiten direnean, erantzuteko aukera daukaten unean egin behar direla adierazi du, une horretan jada zinegotziek ez baitute erantzuteko eskubiderik; izan ere, alkateak baino ezin du erantzun. Berari astakeria piloa leporatu zaio, eta orain ez dauka erantzuteko eskubiderik, ezta bere burua babesteko ere.

4.- EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

D) Eskariak: Lehenengo eskaria azken puntu hori osoko bilkuratik irten bezain laster bertan behera uzteko gai izateari buruzkoa da, aurreko aldietan gertatu den bezala.

Bigarren eskaria hurrengoari buruzkoa da: pertsona askok uste dute nahi batzuk, batzuen ustez hainbestetan defendatu den Konstituzioaren hitzez hitzeko interpretazioa omen direnak, adierazteak ez dakarrela inolako deliturik, ez behintzat presoekiko elkartasunarekin edota nazionalismoarekin zerikusia omen duen edozeri leporatu ohi zaion deliturik. Hori dela eta, benetan garrantzitsua denari buruz hitz egin behar dela uste du. Zinegotzietan adierazi die inork nahi ez duen egoeran daudenei bere elkartasuna erakusten diela, baina bere ustez, ez dira nahastu behar hori eta benetan duten egoera, berarentzat ezberdinak dira eta.

5.- PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Kroaziako banderari buruz hitz egingo duela adierazi du: bandera hori koadro urdinak eta zuriak dituen ezkutua da. Kroaziako hainbat herritarrek, sozialistek, komunistek, nazionalistek eta abarrek idolatratzen dute, eta hala ere, NBEk ez erabiltzeko gomendatu zuen. Zergatik? Bandera horren izenean, begien bilduma egiten zuen jendea zegoelako. Bigarren mundu-gerran hildako serbiarregatik ordaintzen zuten, hildakoen begien pisuaren arabera, eta hala ere, bandera hori berori askatasun ikurra da kroaziarrentzat. Alkate jaunari adierazi dio pertsona asko ados daudela presoak etxera itzuli edo etxetik hurbil egotearekin, edo ideia hori ondo iruditzen zaiela; hala eta guztiz ere, beste pertsona batzuek eraso gisa ulertzen dute bandera hori, eta banderari buruz ari da, ez nahiari buruz. Izan ere, berak ez du nahi inor bere etxetik urrun egotea, eta familia bera ikusten joan ezin izatea. Baina lehen esandakoari

helduko dio: pertsona askok eraso gisa ulertzen dute bandera hori, eta horrela ulertzen dute erasotzeko erabiltzen delako. Alde horretatik, Xabier Olabarrieta Arnaiz PPko bozeramaile jaunaren alde agertzen da, erasota sentitu dela esaten duenean, bera ere erasota sentitzen baita bandera horrengatik, logotipo horrengatik, eta ez banderaren atzean dagoen nahiaren funtsezko alde batengatik.

Bigarrenez, bera bilera horietan ez dela inoiz egon azaldu du, baina jakin badaki bilera horietan gertatu den gauzaren bat. Esate baterako, horietako batean bi pertsonak legez kanpoko talde bateko kideak zirela adierazi zuten, eta nahiz eta gai horretatik drama sortuko ez den, normala iruditzen zaio hain malgua ez den jendea egotea, horren eskubideak ere defendatu behar direla.

PPko Arturo Aldecoa jaunak honakoa adierazi du:

Bere talde politikoa pozik dagoela adierazteko, bi kontu labur aipatu nahi dituela adierazi du:

Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planak gure udalerriko eta ondoan dagoen Erandioko udalerriko gune txikia baina garrantzitsua hezegunetzat jo du behin betiko. Hori dela eta, uste du denak pozik daudela eta horrek aparteko ahalegina eskatzen duela. Gainera, aurkeztu duten aurrekontu zuzenketa bildu ez bada ere, alkate jaunari eta Ingurumeneko arduraduna den Eusko Alkartasunako zinegotziari eskatu nahi die hurrengo hiletan udalerririk horretatik zein jarduketa gauzatu behar diren zehatz-mehatz aztertzeko, Erandioko udalerririk, Bizkaiko Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzarekin batera. Hezegune horrek arazo larria dauka, Eusko Jaurlaritzaren beraren lanak jaso duena; izan ere, gunea lohiz betetzen ari da, eta guztiz lohiz betetzen den hezegunea hilda dago. Oraindik zerbait egiteko une egokian daudenez, Leioarako oso garrantzitsua izan daiteke zerbait egitea.

Leioako Unibertsitatearen ondoan dagoen ospitale ospetsua eraisteko erabiliko den modua ere pozgarria da. Ospitale hori ez zen inoiz zabaldu, baina eraikina bertan dago. Orain dela urte bat eta erdi edo agian bi urte ekimenak aurkeztu zituzten bai Udal honetan, bai Batzar Nagusietan, egituraren amiantoaren egoteagatik kezkatuta zeudela. Orain badakite eraispentzako sistema arretatsua erabiliko dela, eta egia esan, oso arriskutsua izango litzateke edozein eraispentzako egitea, amiantoaren hautsa dela eta. Horrengatik, pozik daudela adierazi nahi du, baina aldi berean, EHUko egitura guztietan etorkizunean egingo diren obretan arreta berdina izan beharko dela azpimarratu nahi dute, egitura horiek ere amiantoaren baitaukate. Hurrengo urteetan obrak egin beharko direnez (egiturak zahartuta daude eta), eta ziur aski, eraikin zaharren ordez eraikin berriak jarriko direnez, eraikin zahar horiek eraitsi beharko dira, eta arreta berdina izan beharko da hori egiteko orduan. Hori dela eta, hori aipatu nahi izan du, guztiek jakin dezaten eta kasua agertzen denean arreta hori mantentzeko.

Eta eguerdiko ordu bata eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,